

**2022KO URTARRILAREN 19KO BATZAR NAGUSIAREN  
BATZAR-EGUNKARIA (ITZULPENA)**

**DIARIO DE SESIONES DE LA SESIÓN PLENARIA DE  
FECHA 19 DE ENERO DE 2022 (TRADUCCIÓN)**

## **AURKIBIDEA**

### **Orrialdea**

|  |    |
|--|----|
| - Batzarra hasi da.....  | 5  |
| - LEHENDAKARI andreak gai-zerrendako lehenengo puntua irakurri dau   | 5  |
| - IDAZKARI jaunak gai-zerrendako bigarren puntua irakurri dau: “8/2021 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, abenduaren 14koa, honen bidez, iruzur fiskala prebenitzeko eta haren kontra borrokatzeko neurriak eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren eremuko premiazko beste batzuk hartzen dira, eta Balio Erantsiaren gaineko Zergan beste neurri batzuk.” ..... | 5  |
| - Ogasun eta Finantzen foru diputatu Iruarrizaga Artaraz jaunak hartu dau berbea .....   | 6  |
| - Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Martínez Fernández batzarkide andreak hartu dau berbea.....  | 7  |
| - Elkarrekin Bizkaia taldeko Benito Ziluaga batzarkide jaunak hartu dau berbea .....   | 8  |
| - Euskal Sozialistak taldeko Álvarez Castrejón batzarkide jaunak hartu dau berbea .....  | 9  |
| - EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea .....   | 10 |
| - Euzko Abertzaleak taldeko Arana Requena batzarkide jaunak hartu dau berbea .....   | 11 |
| - IDAZKARI jaunak gai-zerrendako hirugarren puntua irakurri dau: “Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 6/1989 Foru Araua aldatzea.” .....  | 13 |
| - Elkarrekin Bizkaia taldeko De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea .....   | 13 |
| - Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea.....   | 14 |
| - Euskal Sozialistak taldeko Álvarez Castrejón batzarkide jaunak hartu dau berbea .....  | 16 |
| - EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea .....   | 17 |
| - Euzko Abertzaleak taldeko Lerma Mentxaka batzarkide jaunak hartu dau berbea .....  | 18 |
| - Interviene la Apoderada del grupo Elkarrekin Bizkaia Sra. De Madariaga Martín.....   | 19 |

|   |    |
|---|----|
| - Interviene el Apoderado del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia Sr. Andrade Aurrecoechea.....                                     | 20 |
| - Interviene el Apoderado del grupo Socialistas Vascos Sr. Álvarez Castrejón .....  | 21 |
| - Interviene la Apoderada del grupo EH Bildu Sra. Urkaregi Etxepare   | 22 |
| - Interviene el Apoderado del grupo Nacionalistas Vascos Sr. Lerma Mentxaka.....  | 22 |
| - IDAZKARI jaunak gai-zerrendako laugarren puntua irakurri dau: “Basogintzaren egoera.” .....                                       | 23 |
| - EH Bildu taldeko Arriola Alzola batzarkide andreak hartu dau berbea   | 24 |
| - Elkarrekin Bizkaia taldeko Fernández Medrano batzarkide jaunak hartu dau berbea .....   | 26 |
| - Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea.....                              | 27 |
| - Euskal Sozialistak taldeko Ortiz Zaballa batzarkide jaunak hartu dau berbea .....   | 29 |
| - Euzko Abertzaleak taldeko Lekerikabeaskoa Arrillaga batzarkide jaunak hartu dau berbea .....                                      | 31 |
| - EH Bildu taldeko Arriola Alzola batzarkide andreak hartu dau berbea   | 33 |
| - Elkarrekin Bizkaia taldeko Fernández Medrano batzarkide jaunak hartu dau berbea .....   | 34 |
| - Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea.....                              | 35 |
| - Euskal Sozialistak taldeko Ortiz Zaballa batzarkide jaunak hartu dau berbea .....   | 36 |
| - Euzko Abertzaleak taldeko Lekerikabeaskoa Arrillaga batzarkide jaunak hartu dau berbea .....                                      | 38 |
| - IDAZKARI jaunak gai-zerrendako seigarren puntua irakurri dau: “Bizkaian egiten diran egonaldi turistikoen ganeko zergea ezartea.” | 39 |
| - Elkarrekin Bizkaia taldeko Benito Ziluaga batzarkide jaunak hartu dau berbea .....  | 40 |
| - EH Bildu taldeko Rahona Garay batzarkide jaunak hartu dau berbea  | 41 |
| - Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Martínez Fernández batzarkide andreak hartu dau berbea.....                               | 43 |
| - Euskal Sozialistak taldeko Trimiño Vegas batzarkide jaunak hartu dau berbea .....   | 44 |

|  |    |
|--|----|
| - Euzko Abertzaleak taldeko De Luis Zelaia batzarkide jaunak hartu dau berbea .....                            | 45 |
| - Elkarrekin Bizkaia taldeko Benito Ziluaga batzarkide jaunak hartu dau berbea .....                           | 47 |
| - EH Bildu taldeko Rahona Garay batzarkide jaunak hartu dau berbea   | 48 |
| - Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Martínez Fernández batzarkide andreak hartu dau berbea.....          | 49 |
| - Euskal Sozialistak taldeko Trimiño Vegas batzarkide jaunak hartu dau berbea .....                            | 50 |
| - Euzko Abertzaleak taldeko De Luis Zelaia batzarkide jaunak hartu dau berbea .....                            | 52 |
| - IDAZKARI jaunak gai-zerrendako zazpigarren puntua irakurri dau: “Etxeko zaintzak.” .....                     | 52 |
| - EH Bildu taldeko Duque Santacoloma batzarkide andreak hartu dau berbea .....                                 | 53 |
| - Euskal Sozialistak taldeko Campo Prieto batzarkide andreak hartu dau berbea .....                            | 55 |
| - Euzko Abertzaleak taldeko Coria Yanguas batzarkide andreak hartu dau berbea .....                            | 56 |
| - Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea.....         | 57 |
| - Elkarrekin Bizkaia taldeko De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea .....                     | 59 |
| - EH Bildu taldeko Duque Santacoloma batzarkide andreak hartu dau berbea .....                                 | 60 |
| - Euskal Sozialistak taldeko Campo Prieto batzarkide andreak hartu dau berbea .....                            | 62 |
| - Euzko Abertzaleak taldeko Coria Yanguas batzarkide andreak hartu dau berbea .....                            | 62 |
| - Elkarrekin Bizkaia taldeko De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea .....                     | 63 |
| - IDAZKARI jaunak gai-zerrendako zortzigarren puntua irakurri dau: “Arteako udalerriko bandera sortzea.” ..... | 64 |
| - Euskal Sozialistak taldeko Otermin Eraso batzarkide jaunak hartu dau berbea .....                            | 65 |
| - EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea .....                                 | 65 |

- Euzko Abertzaleak taldeko Gómez Devesa batzarkide andreak hartu dau berbea ..... 66
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako bederatzigarren puntua irakurri dau: “Ugao-Miraballeseko udalerriko bandera sortzea.” ..... 66
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako hamargarren puntua irakurri dau: “Arrankudiaga udalerraren izena aldatzeko proposamena.” ..... 67
- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea ..... 67
- Euzko Abertzaleak taldeko Gómez Devesa batzarkide andreak hartu dau berbea ..... 68
- Batzarra amaitu da..... 69

2022ko urtarrilaren 19ko batzarra  
goizeko 09:00etan hasi da.

Se inicia la sesión del 19 de enero  
de 2022 a las 09:00 horas.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señores y señoras, señor Diputado General, diputados/as, estimados/as junteros/as y a todas las personas que van a seguir esta sesión plenaria vía streaming, buenos días y bienvenidos/as.

Antes de comenzar con la Sesión Plenaria de hoy, varios avisos. En cuanto a las delegaciones de votos, he de decir que el señor Vega Isasi ha delegado su voto a la señora Ilardia Olangua, y el señor López De la Fuente ha delegado su voto al señor Lekerikabeaskoa Arrillaga. Y otro aviso, bueno, dos avisos. Hemos tenido dos modificaciones en el Orden del Día; el primero de ellos es que hemos añadido un nuevo punto, con el consenso de todos/as los/as portavoces, y que será, concretamente, la convocatoria de la nueva juntera. Y luego, también diré que se ha retirado del Orden del Día la Propuesta No de Norma presentada por el Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, que corresponde al punto quinto.

Dicho esto, comenzaremos con el Orden del Día. Y en el primer punto nos corresponde convocar a la nueva juntera

**0.- Examen, debate y votación, en su caso, del/ de los escritos sobre:**

**Iniciativa**                      **Originaria:**                      Credencial  
[\(R.E.11/E/2021/0003872\)](#)  
**Autor:** JUNTA ELECTORAL CENTRAL  
**Asunto:** Credencial de Apoderada de Dña. Esther Martínez Fernández.  
**Documento Principal:** [\(R.E.11/E/2021/0003872\)](#)  
**Expediente:** [11/C/03/0003045](#)

**0.- Honako idatzi hau aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:**

**Jatorrizko**                      **ekimena:**                      Batzarkide-agiria  
[\(11/E/2021/0003872SE\)](#)  
**Egilea:** HAUTESKUNDE BATZAR ZENTRALA  
**Gaia:** Esther Martínez Fernández batzarkidearen egiaztatutuna  
**Dokumentu nagusia:** [\(11/E/2021/0003872SE\)](#)  
**Espedientea:** [11/C/03/0003045](#)

La señora Esther Martínez Fernández, con motivo de la Junta Electoral Central. Según la normativa vigente, se convoca a la señora juntera Esther Martínez Fernández para que manifieste de forma fehaciente que acepta todas las obligaciones impuestas por la presente normativa, así como los derechos que le ofrece. Le solicitaremos a la señora Martínez Fernández que ocupe el escaño correspondiente. Bienvenida, señora Martínez Fernández y, por favor, acceda a su escaño. Muchas gracias.

El segundo punto del Orden del Día, señor Secretario.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

1.- Examen, debate y votación, en su caso,

1.- Honako idatzi hau aztertu, eztabaidatu eta,

del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Decreto Foral Normativo (Transposición) ([R.E.11/E/2021/0003726](#))

**Autor:** Diputación Foral de Bizkaia

**Asunto:** Decreto Foral Normativo 8/2021, de 14 de diciembre, por el que se adoptan medidas de prevención y lucha contra el fraude fiscal, medidas urgentes en el Impuesto sobre el Valor de la Producción de Energía Eléctrica y otras medidas en el Impuesto sobre el Valor Añadido.

**Documento Principal:** ([R.E.11/E/2021/0003726](#))

**Boletines:** [Admisión a trámite](#) (11A)

**Expediente:** ([11/A/03/0002980](#))

halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Foru Dekretu Arauemailea (Transposizinoz) ([11/E/2021/0003726SE](#))

**Egilea:** Bizkaiko Foru Aldundia

**Gaia:** 8/2021 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, abenduaren 14koa, honen bidez, iruzur fiskala prebenitzeko eta haren kontra borrokatzeko neurriak eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren eremuko premiazko beste batzuk hartzen dira, eta Balio Erantsiaren gaineko Zergan beste neurri batzuk.

**Dokumentu Nagusia:** ([11/E/2021/0003726SE](#))

**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea](#) (11A)

**Espediente:** ([11/A/03/0002980](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Secretario. Señor diputado Iruarizaga Artaraz, representante de la Diputación, tiene usted la palabra para exponer el proyecto.

El Sr. **IRUARRIZAGA ARTARAZ** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as, egun on guztioi.

Uste dot danok dakizuela Ez-egoiliarren Errentearen gaineko Zergea, Energia Elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko Zergea eta Balio Erantsiaren gaineko Zergea itundutako tributuak dirala, eta, horreek eraentzeko, Estaduak une baxotxean ezarrira daukazan arau substantibo eta formal berak erabiliko dirala. Horixe da indarrean dagoan Ekonomia Itunean azaltzen dana.

Foru Dekretu Arauemaile horren bitartez, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren eta Ez-egoiliarren Errentearen gaineko Zergaren araudia Estaduan 11/2021 Legeak sartutako aldaketei egokitzen dira. Lege hori Iruzur fiskala prebeniduteko eta haren kontra burrokatzeko neurriei, Kontseiluaren 2016ko garagarriaren 12ko Zuzentarauaren transposizinoari (haren bidez, barne-merkaduaren funtzionamentuan zuzeneko eragina daben saiheste fiskaleko jardunbideei aurre egiteko arauak ezarten dira) eta zerga-arau batzuk eta jokoaren erregulazioaren arloko beste batzuk aldatzeari buruzkoa da.

Era berean, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Foru Araua Ekonomia Ituneko Batzorde Mistoaren Lehen Akordioan xedatutakora egokitu da. Eta, azkenik, Energia Elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko Zergan aldaketak sartu dira, Gas- eta elektrizidade-merkadu txikizkarietako gas naturalaren prezioen igoerearen eragina arintzeko preminazko neurriei buruzko irailaren 14ko 17/2021 Errege Lege-dekretuaren ondorioz.

Iruzur fiskala prebeniduteko eta haren kontra burrokatzeko neurriei jagokenez, Balio Erantsiaren gaineko Zergea eta Ez-egoiliarren Errentearen gaineko Zergea aldatzen hasi gara. BEZari jagokenez, alde batetik, BEZaren Araua, lehen esan dodan lez, Prebeniduteko Neurriei buruzko 11/2021 Legeak zerga horretan sartutako aldaketei egokitu jake. Eta, funtsean, neurri horreek honakoak dira: zerga-zorraren ordainteketaren erantzukizun subsidiarioa zabaltzea inportatzaileen izenean eta haren kontura diharduen personei eta erakundeei, eta Alkoholaren eta Edabe Deribaduen gaineko Zergaren zein Hidrokarburoen

gaineko Zergearen eremu objektiboen barruko produktuen gordetegi fiskalen titularrei. Erakunde-taldearen araubideko betebeharrak espezifikoen ez-beteteen norainokoa eta izaerea zehaztu dira; araubide horretan, erakunde nagusiak izan behar dau, nahitaez, subjektu arauhauslea; izan be, erakunde-taldearen ordezkariak izanik, behartuta dago araubide berezirik eratorritako betebeharrak material zein formal espezifikoa betetera.

Beste alde batetik, Balio Erantsiaren gaineko Zergearen Araua Ekonomia Ituneko Batzorde Mistoak 2021eko garagarriaren 29ko bilkuran adostutako Lehen Akordioan xedatutakora egokitu da, araubide berezi batzuetarako zehazten diran konexino-puntuei jagokenez. Horren ondorioz, ondasunen urruneko salmentetarako eta ondasunen emote nazional batzuetarako araututako leihatila bakarreko araubide berezietan jagokenez zergearen ordainarazpena Bizkaiko Foru Aldundiari egokituko jake, Aldundiak honako enpresaburu edo profesional honeen gaineko ikuskatze-eskumena daukan kasuetan: zergia apliketan dan lurraldean establezimentua izan eta halako araubideak apliketea aukeratzeaz gainera, Espainia identifikazioneko estatu kide lez izentau dabenak. Halanda be, inportazio-araubidean bitartekari bat izentau bajake, zergia Bizkaiko Foru Aldundiak ordainarazoko dau, izentautako bitartekariakaz ikuskatze-eskumena berak badauka.

Ez-egoiliarren Errentearen gaineko Zergari jagokenez, zergia horren eremuan Foru Arauaren 9. eta 10. artikuluetan aldaketak sartu dira, 11/2021 Legean datozan aldaketak, hatan be, lehen aitatu dogun lez. Horren bidez, Europar Batasuneko beste herrialde bateko egoiliar zergadunak Espainian ordezkaria izentetako betebeharririk salbuesten dira; hori Europako esparru ekonomikoko kide diran estatuak be aplikatu ahal jake, beti be euren tributuei eta diru-bilketari buruzko informazio-trukearen arloan alkarri emon beharreko laguntzari buruzko araudirik badago.

Eta, azkenik, Energia Elektriakoaren Ekoizpenaren Balioaren gaineko Zergari jagokenez, irailaren 14ko 17/2021 Errege Lege-dekretuan araututakoaren arabera, Energia Elektriakoaren Ekoizpenaren Balioaren gaineko Zergearen aldi baterako etendurea hiruhileko bat gehiago luzatu da. Era berean, 2021. ekitaldian zehar zergia horren araudian araututako ordainketa zatikatuen zergia-oinarria zehazteko beharrezko diran arauak ezarri dira. Modu horretan, etendureak 2022ko bigarren seihileko osoari eragiten deutso.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Iruarrizaga Artaraz. Y a continuación, como saben ustedes, procederemos a votar el Decreto Foral Normativo.

Por consiguiente, ¿votos a favor?, ¿votos en contra?, ¿y abstenciones?

El resultado es el siguiente:

Se han emitido 50 votos en total. Han sido 38 votos a favor, no ha habido votos en contra, y han sido 12 abstenciones. Por lo tanto, queda aprobado, validado.

Y a continuación, procederemos al turno de exposición de votos, de forma organizada a partir del grupo más reducido al grande. Para ello, la representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señora Martínez Fernández, tiene usted la palabra.

La Sra. **MARTÍNEZ FERNÁNDEZ** andreak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea.



Tira, gu abstenidu egin gara. Argi dago itundutako tributuak gure foru-araudira egokitzeko baliozkotze-dekretu bat dana. Horreek Estaduak unean-unean ezarritako arau substantibo eta formalen arabera arautu behar dira, eta horregaitik abstenidu gara.

Halanda be, ez geunke aukera hau galdu gura esateko, azkenengo kasuan, argiaren gaiaren inguruan, beste ipingi bat gehiago baino ez dala. Agirikoa da, zioen errazoketeak dinoan lez, gasaren kotizazioak gora egin dauena, eta, gainera, agirikoa da gaur egun, 2021eko dataz, argia 2018an baino %21 garestiagoa dana, beste zeozer saldu gura izan deuskuzuen arren. Argiaren prezioa laukoiztu be egin da, egunero ikarearen ikareaz bizi gara; egia esateko, inflazioa neurribakoa da, eta, gure ustez, argiari jagokonez, Gobernua, zuon kideen laguntzeagaz, hoba ez, ipingiak jarteko neurriak baino ez da ezarten ari. Egia esan, lehengoan gogora etorri jatan Miguel Sebastianen bonbilla-operazino ezaguna, argiaren gai honetan laguntzeko Alderdi Sozialistek berba egiten euskunean; operazino horrek ia 40 milioi euroko kostua izan eban eta hondinokarren ez dakigu bonbillak non dagozan, baina, tira, kontua da argiaren prezioak gora egiten jarraitzen dauela eta ipingiak jarteko neurri horreek, jakina, ez dirala emaitzak emoten ari. Hortik dator gure ohartarazpena eta puntu honetan gure abstentzinoa.

Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Martínez Fernández.

El representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señor Benito Ziluaga, tiene usted la palabra.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Sí, muchas gracias, y buenos días a todos/as.

Gaur onartutako Foru Dekretu Arauemaileak aldaketa batzuk sartzen dauz, eta, esan dan lez, Ekonomia Itunean ezarritakoaren arabera, Estaduak une baktotxean ezarritako arau substantibo berberen arabera arautu behar dira. Baina lege-kontu horretatik harago, esan geinke Elkarrekin Podemos-IUk Foru Dekretu Arauemailearen alde bozkatu dauela, jasoten dauzan neurriak positiboak eta beharrezkoak diralako. Lehenik eta behin, iruzurrak edo abusuak saihesteko argibide batzuk sartu dira BEZaren araudian; arabere zehatzago, erantzukizunagaz eta betebeharrak beteteagaz lotutako hainbat puntu zabaltzen edo argitzen dira. Bigarrenik, Ekonomia Ituneko Batzorde Mistoaren 2021eko garagarrileko Lehenengo Akordioa sartu da, urrutiko salmentei eta leihatila bakarreko araubide bereziei buruzkoa. Hirugarrenik, Ez-egoiliarren Zergearen Foru Araudia Europako araudira egokitu da, Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetan bizi diran zergadunak Espainian ordezkaria izentetako betebeharretatik libre geratu daitezcan. Eta laugarrenik, eta azkenik, hiruhileko bat gehiago luzatu da Energia Elektrikoaren Ekoizpenaren Balioaren gaineko Zergearen aldi baterako etendurea.

Estaduko Gobernuak faktura energetikoaren prezioa murrizteko hartu eban neurri ugarietako bat da hori, nazinoarteko merkaduetan gasaren prezioek gora egiten eban baten. Eta gai horren inguruan, daukan garrantzia dala eta, gehiago sakondu gura dot, igazko udatik hona megawatt/orduko prezioak izan dauen etenbako hazkunderari erantzunez, Estaduko koalizino-gobernuak neurri batzuk hartu ebazalako kontsumitzaileek azken fakturan ordaintzen daben prezioari eusteko. Neurri hori mesedegarria izaten ari dala onartzen dau gure taldeak, baina aldi baterako balio dau, eta ez leuke estaldu behar daborduko lantzen ari diran izaera egiturazkoagoko beste neurri batzuen beharra; esate baterako, eta lehenengo eta behin, prezioak finkatzeko sistemearen erreforma, eredu marjinalistegaz behin betiko amaitu daigun, eredu horretan gasaren prezio altuak beste energia-iturri askoz merkeagoen prezioa puztu egiten

dauelako, energia barriztagarriena, berbarako. Horren haritik, Gobernuak daborduko eroan dau proposamen hori Kontseilu Europarrera. Bigarrenik, enpresa elektrikoak egoera horretan irabazten ari diran aparteko etekinak mugatzea eta, hirugarrenik, energia-enpresa publiko baten figura berreskuratzea.

Halanda be, enpresa elektrikoen aparteko etekinak mugatzeko proposamen horreek ez eben Kongresuan izan gaur hemen gagozan talde politiko guztien babes. Lehenik eta behin, Alderdi Popularraren aldetik, aitatu dan lez. Izan be, bardin deutso iso zein arre; koalizino-gobernutik datorren bitartean, txarto egongo da. Emoten dau, tira, ia diseinuzko amnesia daukiela eta ahaztu egiten dabezala Rajoyren gobernuak atera ebazan dekretu zakarrak, kanon hidraulikoarena, esaterako, eta haren ilegaltasuna eta nahitaezko itzulketea 1.900 milioi euro kostetan ari jakuzala diru-kutxa publikoei. Eta, bigarrenik, enpresa elektrikoen aparteko etekinak mugatzeko neurri horreek be ez eben Euzko Alderdi Jeltzalearen babesik izan kasu horretan; izan be, ostera be, eta zoritxarrez, gure ustez, Kongresuan enpresa elektrikoen bozeroalearena egin eban.

Besterik ez, eta eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Benito Ziluaga. El representante del grupo Socialistas Vascos, señor Álvarez Castrejón, tiene usted la palabra.

El Sr. **ÁLVAREZ CASTREJÓN** jaunak: Mahaiburu andrea, mahaikideak, ahaldun jaun-androk, buenos días a todos/as.

Ogasuneko foru-diputaduak azaldu deuskunez, Ekonomia Itunak sine qua non baldintza lez ezarten dau zerga jakin batzuek Estaduak une baktotxean ezarrita daukazan arau substantibo eta formal berak bete behar dabezala, itundutako zergak diralako. Horreen artean, hemen gaur aitutzen ari garan zergak dagoz, esaterako, Ez-egoiliarren Errentea, Balio Erantsiaren Zergea, Ekoizpen Elektrikoaren Zergea.

Foru Dekretu Arauemaile horren bidez, arau horreen transposizinoa egingo dogu. Ikusi ahal izan dozuenez, nire taldeak aldeko botoa emon dau. Halanda be, itxidazue aurrekari txiki bat emoten. Irailaren 15ean argitaratu zan Estaduko Aldizkari Ofizialean irailaren 14ko 17/2021 Errege Lege-dekretua, Gas- eta elektrizidade-merkadu txikizkarietako gas naturalaren prezioen igoerearen eragina arintzeko preminazko neurriei buruzkoa. Espainiako Gobernuak sartutako neurri garrantzitsuenen artean, eta bere garaian, bagilean hartutakoei gehitzen jakezanak, honakoak egozan: BEZaren zerga-tasea jastea (%21etik %10era 10 kW-rainoko potentzia daben horniduretarako), eta Energia Elektrikoaren Ekoizpenaren Salmentearen gaineko Zergea aldi baterako etetea, Bizkaiko Lurralde Historikoaren ordenamentuan sartuta egozanak garagarriaren 27ko 6/2021 Foru Dekretu Arauemailearen bidez.

Gaur Ganbera honetara ekarri dogun Errege Dekretuaren transposizinoak, preminazko neurri arautzaileak ezarten dauz merkadu elektrikoak prezioen maximo historikoakaz sortu dauen ezohiko egoerearen aurrean. Hori dala eta, batez be elektrizidadearen prezioen bat-bateko igoerea arintzera bideratuta dagoz, zaurgarritasun energetikoko egoeran dagozan kontsumitzaileei begira gehienbat, bai eta industriaren eta zerbitzuen sektorearen lehiakortasun-galera behingo baten saihestera be. Kontsumitzaileak babesteko neurriak dira, eta barrikuntza garrantzitsuenetako bat gitxieneko bizi-hornidurea sortzea da, duda barik.

Gehitu gura dot, eta ez poz barik, gobernu aurrerakoi sozialen lidergotik zaurgarritasun-egoeran dagozan kontsumitzaileei babes emoteko neurriak sartzen ari garala

antolamendu juridikoan, horreentzat eragin handia izan dauelako elektrizidadearen egungo prezio-igoereak. Neurri horreek ez dira bakarrak, 2019-2024ko Energia-pobreziaren aurkako Estrategia Nazionalan jaso ziran-eta. Agirian geratu da tresna mueta horreek egituratzeko beharra, Espainian persona askok be askok aurre egin behar deusie-eta zaugarritasun-egoereari.

Horregaitik, Errege Dekretuaren gaurko transposizioak honako barrikuntzak sartzen dauz: energia-pobreziaren egoereari aurre egiteko gizarte-babeseko tresna izango dan gitxieneko bizi-hornidurearen figura sortzea, egoera horren aurrean kontsumitzaileak zaugarritasun ezin handiagoan dagoz-eta; gitxieneko erosotasun-baldintzak bermatzen dauzan gehieneko potentzia bat ezarri da, bai eta 6 hilebetez eten ezin izango dan hornidurea be, fakturak ordaintzen ez badira; eta Zerga Bereziaren zerga-tasearen murrizketea jaso da, eta, aldi berean, Europako Kontseiluaren 2003/96 Zuzentarauko aginduetan harmonizetan da, erkidegoko araubidearen mailan. Baina ez da hor geratzen, hau da, beste alde batetik, eta Ez-egoiliarren Errentearen gaineko Zergearen eremuan, establezimenturako eta zirkulaziorako askatasunak bultzatzeko aldaketak sartu dira, Europar Batasunaren zuzenbideagaz bat etorritz. Balio Erantsiaren gaineko Zergeari jagokonez, aldaketa batzuk sartu dira, abusua edo iruzurra eragin leikiezan interpretazino okerrak saihesteko, endemas zerga-erantzukizunaren arlokoak. Aduana-ordezkaritzearen eta aduana-ordezkarriaren arloko zergearen ordaintetan erantzukizun subsidiarioaren kasua eguneratu da, eta betebeharrak espezifikokoak noraino ez diran beteten eta euren izaerea zehaztu da. Azken baten, BEZaren zerga-araubidearen etekinak iruzurrez erabiltea saihestu gura da, zergatik salbuetsitako erosketak egiteko.

Ikusi zeinkienez, hainbat zerga-arauren aldaketea da, batzuk zergak saihestearen eta zerga-igesaren aurka, barne-merkaduaren funtzionamentuan eragin zuzena dabelako. Besterik ez, eta eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Álvarez Castrejón. La representante del grupo Euskal Herria Bildu, señora Urkaregi Etxepare, tiene usted la palabra.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta, buenos días a todos/as.

EH Bildu se ha abstenido, y tenemos diferentes razones para actuar de este modo.

La primera razón, como hemos mencionado en numerosas ocasiones, es que los impuestos que se modifican, el IVA, el Impuesto sobre la Renta de no Residentes y el Impuesto sobre el Valor de la Producción de Energía Eléctrica, no son de nuestra competencia. Son competencia del Estado y, por tanto, no podemos decir nada, no podemos modificar nada.

Estamos de acuerdo con el objetivo de luchar contra el fraude fiscal, pero no tenemos ninguna capacidad de decisión.

En primer lugar, la Unión Europea aprobó la Directiva 2016/1164, por la que se establecen normas para hacer frente a las prácticas de elusión fiscal que afectan directamente al funcionamiento del mercado interior.

El pasado mes de julio, el Congreso de España aprobó la Ley 11/2021, de transposición de esta Directiva. Y ahora, la Diputación nos presenta el Decreto Foral Normativo que ya está vigente, para su ratificación.

Pero no podemos cambiar ninguna coma, sino copiar lo que han aprobado Europa o el Gobierno de España y el Congreso.

El segundo motivo. La citada Ley 11/2021 afecta a un mayor número de medidas e impuestos, como los Impuestos Especiales, que son competencia del Estado, pero estas modificaciones no se encuentran en este Decreto Foral Normativo, ni hemos visto que se planteen en otro distinto. Y en Araba, por ejemplo, sí se introdujeron esas medidas.

Y en la Ley 11/2021 hay otras medidas que emanan de la Directiva Europea y que son de nuestra competencia, en este caso deberíamos modificar nuestras Normas Forales, pero no parece que exista ninguna intención para ello. Por ejemplo, el límite de la deuda en la publicación de listas de morosos, así como otras cuestiones.

Por tanto, en este caso no se ha modificado lo que dice el Estado, sino que la Diputación decide trasladar a estas Juntas Generales y cómo trasladarlo, es decir, que en los últimos tiempos se utiliza de forma reiterada el Decreto Foral Normativo para cerrar las puertas a un verdadero debate.

En tercer lugar, además de incorporar a nuestra normativa algunas medidas de la Ley 11/2021, se incorpora en el artículo 3 la medida impuesta por el Real Decreto Ley 17/2021, aprobado en septiembre, consistente en la suspensión temporal del Impuesto sobre el Valor de la Producción de la Energía Eléctrica, que se amplía en tres meses más.

Esta medida se había adoptado hasta el mes de septiembre y reiteramos la opinión que manifestamos cuando se trató en este foro, en el sentido de que esta medida en ningún caso es suficiente para hacer frente al incremento del precio de la electricidad.

Entre el 10% y el 15% de la factura eléctrica corresponde a impuestos y más de la mitad son costes de redes de transporte y distribución y anualidades de déficit tarifario. Entre todos/as estamos pagando lo que deberían pagar las empresas eléctricas. Mientras tanto, las empresas eléctricas siguen teniendo unos beneficios enormes.

Como ya dijimos en la anterior ocasión, la reducción del precio de la electricidad requiere, por un lado, limitar los rendimientos del oligopolio eléctrico y, por otro lado, dar pasos en la creación de una empresa eléctrica pública. Por lo tanto, la ampliación de tres meses planteada en el artículo 3 no es en ningún caso suficiente para controlar el precio de la electricidad.

En este primer Pleno del nuevo año hemos vuelto a contar con una propuesta de ratificación de un Decreto Foral Normativo. En realidad, esperamos que a partir de ahora se prescindiera de la sobreutilización del instrumento de los Decretos Forales Normativos, ya que no es el cauce adecuado para impulsar debates y acuerdos entre diferentes, que es lo que debería primar en estas Juntas Generales. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Urkaregi Etxepare. Y el representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor Arana Requena, tiene usted la palabra.

El Sr. **ARANA REQUENA** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as.

Foru Aldundiak defendiduten dauen abenduaren 14ko 8/2021 Foru Dekretu Arauemaileari jagokonez (horren bidez, Iruzur Fiskala Prebeniduteko eta haren kontra

Burrukatzeko Neurriak eta Energia Elektrikoaren Ekoizpenaren Balioaren gaineko Zergearen eremuko preminazko beste batzuk hartzen dira, eta Balio Erantsiaren gaineko Zergan, beste neurri batzuk), gure taldeak aldeko botoa emon deutso eta honakoa adierazo gura dogu: maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onartutako eta gure Autonomia Erkidegoa gobernetan dauen Ekonomia Itunak, esan dan lez, bere 21. artikuluan, 23.4an, eta 26. artikuluan ezarten dau Ez-egoiliarren Errentearen gaineko Zergea, Balio Erantsiaren gaineko Zergea eta Energia Elektrikoaren Ekoizpenaren Balioaren gaineko Zergea, hurrenez hurren, Estaduak une bakotxean ezarritako arau substantibo eta formal berberen arabera arautuko dirala.

Garagarrilaren 9an, Iruzur Fiskalaren aurkako Prebentzino eta Burrukarako Neurriei buruzko 11/2021 Legea onartu zan, garagarrilaren 9koa, 2016ko garagarrilaren 12ko Kontseiluaren 2016/1164 Europar Batasunaren zuzentarauaren transposizino lez. Horren bidez, barne-merkaduaren funtzionamentuan zuzeneko eragina daben saiheste fiskaleko jardunbideei aurre egiteko arauak ezarri ziran, eta zerga-arau batzuk eta jokoaren erregulazinoaren arloko beste batzuk aldatu ziran.

Eztabaidatzen ari garan gure Foru Dekretu Arauemailea honako puntu honeetan oinarritzen da: BEZari jagokonez, gordetegi eta aduana-ordezkarien inguruan erantzukizun subsidiarioaren kasua eguneratu da; enpresa-taldeei jagokonez, ez-beteteen norainokoa eta izaerea eta erakunde nagusiaren erantzukizuna be zehaztu dira; eta, azkenik, erantzukizun subsidiarioa zabaldu da aduanetakoak ez diran gordetegien iruzurra saihesteko.

Ez-egoiliarren Errentearen gaineko Zergeari jagokonez, establezimenturako eta zirkulazinarako askatasuna bultzatzeko aldaketa batzuk sartu dira, Europar Batasunaren Zuzenbideagaz bat. Horreen bidez, Espainian ordezkaria izentetako betebeharretik libre geratzen dira.

Eta, azkenik, elektrizidadearen prezioa zehazten daben enpresak jasaten ari diran kostu handiagoak konpentsetako eta kontsumitzaileen alde egiten jarraitzeko, egokitza jo da Energia Elektrikoaren Ekoizpenaren Balioaren gaineko Zergearen etendurea hiruhileko gehigarri batez luzatzea. Neurri hori daborduko garagarrilaren 27ko 6/2021 Foru Dekretu Arauemailearen bidez ezarri zan Bizkaiko Lurralde Historikoan. Orain bere denpora-mugea zabaldu egiten da. Hau da, kontsumitzaileei lagundu egiten jake elektrizidadea ekoizten daben enpresentzako kostuak murriztuz, prezioa gitxitu daiten.

Foru Dekretu Arauemaile honen mamina ikusita, ikuspegi soziala dauka, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-sisteman ezinbestean egokitu beharreko zerga-neurriak jasoten dauz. Horregaitik, Foru Aldundia behartuta dago Foru Dekretu Arauemaile hau emotera, eta horretarako ahalmena dauka Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martiaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorren 8. artikuluan jasotako baimenaren arabera. Horregaitik guztiagaitik, eta segurtasun juridikoa bermatzeko asmoz, gure taldeak, Euzko Abertzaleak taldeak, Foru Dekretu Arauemaile honen alde bozkatuko dau. Azkenik, beti lez, gogoratu beharra dago arauak “foralizetea” gure autogobernua sendotzea dala.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Arana Requena. Y el tercer punto del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

2.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Proposición de Norma Foral ([R.E.11/E/2021/0002929](#))

**Autor:** De Madariaga Martín, Eneritz (EB)

**Asunto:** La reforma de la Norma Foral 6/1989, de 30 de junio, del Impuesto sobre Actividades Económicas

**Documento Principal:**  
([R.E.11/E/2021/0002929](#)),([R.E.11/E/2021/0002984](#))

**Boletines:** [Admisión a trámite](#) (15A)

**Expediente:** ([11/A/07/0002883](#))

2.- Honako idatzi hau aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Foru Arau Proposamena ([11/E/2021/0002929SE](#))

**Egilea:** De Madariaga Martín, Eneritz (EB)

**Gaia:** Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 6/1989 Foru Araua aldatzea

**Dokumentu Nagusia:**  
([11/E/2021/0002929SE](#)),([11/E/2021/0002984SE](#))

**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea](#) (15A)

**Espedientea:** ([11/A/07/0002883](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Corresponde el turno al grupo proponente. Por lo tanto, señora De Madariaga Martín, tiene usted la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta, y buenos días a todos/as.

Elkarrekin Bizkaiak, IAE izenez be ezaguna dan Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko bagilaren 30eko 6/1989 Foru Araua aldatzeko proposamena dakar, Ganbera honetako taldeek aintzat hartu dagien.

Aldaketa-proposamen horren helburuetako bat da, alde batetik, zerga hori hiru lurralde historikoen artean harmonizatea, eta, bestetik, gure udalerrien finantzaketea hobetzea. Eta, jakin badakigunez pandemiak Bizkaiko sare ekonomikoan izan dauen eragina, datozen urteetarako hobari batzuk be proponidu doguz, 2022. honetarako eta 2023rako.

Baina, proposamen zehatzean sartu aurretik, nik uste dot komenidu dala historia apur bat egitea. Jakingo dozuenez, 2003. urtean, hiru aldundietako foru-gobernuek, euren zerga-ahalmenen barruan, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergea arautzen daberen foru-arauak aldatzea erabagi eben. Une horretan, salbuespenaren gitxienekoa 2 milioi eurotan ezarri zan.

Bizkaiaren kasuan, aldaketa horrek ekarri eban diru-sarreren beherakadea 32,8 milioi eurokoa izan zan, Aldundiaren beraren iturrien arabera. Eta gaur harenbaten askoz gehiago izango da.

Urteak aurrera egin ahala, Gipuzkoak eta Arabak atzera egin dabe. Gipuzkoak 2012-2013 urteetan aldatu eban salbuespenerako muga hori, Euskal Herria Bildu Foru Aldundian egoala, eta 1.000.000 eurotan ezarri eban barriro. Arabak be 2016an aldatu eban salbuespen hori, milioi bat eurora artekoa.

Halanda ze, 2016. urterik hona Ekonomia Jardueren gaineko Zergearen ordainketearen salbuespena 2.000.000 eurotik behera daukan lurralde bakarra Bizkaia da.

Eta, alde horretatik, zein da gure planteamentua? Bada, lehenengo eta behin, salbuespenei buruzko 5. artikularen h) letrea aldatzea proponidu dogu. Eta aldaketa horretan, proponidu dogu salbuetsitako eragiketen bolumena 1.000.000 eurora murriztea. Beraz, gaur egun 1 eta 2.000.000 euro arteko eragiketa-bolumena daukien enpresak, orain zergak ordaintzetik salbuetsita dagozanak, aldaketa horregaz ordaintzen hasiko lirateke.

Dakizuenetz, gaur egun, Bizkaiko araudiak 2.000.000 eurotik beherako eragiketa-bolumena daukien subjektu pasibo horreek zergak ordaintzetik salbuetsita egotea ahalbidetzen dau. Eta hori Bizkaian bakarrik gertatzen da, esan deusuedan lez, Araban eta Gipuzkoan 1.000.000 euroko eragiketa-bolumena daukien enpresek Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga ordaindu behar dabelako. Era berean, horixe gertatzen da Espainiako Estaduko gainerako autonomia-erkidegoetan be.

Hau da, harmonizazino fiskalaren gabezia nabarmena dago, eta horrek, de facto, Bizkaia enpresek baldintza fiskal onuragarriagoak daukiezan lurralde bihurtzen dau. Baina, aldi berean, eragin negatiboa dauka Bizkaiko udalerrien diru-bilketan bertan, eta hori saihesten saiatzen gara aldaketa honegaz.

Bigarrenik, udalek aplikau ahal izango dabezan haztopen-koefizienteei buruzko 10. artikulua aldatzea proponidu dogu. Egin dogun proposamenean, Gipuzkoako eta Arabako araudietan daborduko jasota dagozan koefizienteak gure gain hartzen doguz, eta era horretan harmonizazino fiskaleko prozesuagaz jarraitzen dogu.

Eta hirugarrenik eta azkenik, pandemiaren ondorioz bizi dogun egoera ekonomikoagazko sentikorak izanda, 2022ko eta 2023ko zergaldietan aplikau beharreko hobaria proponidu dogu Xedapen Iragankor baten bidez: 2022ko estaduko eta probintziako kuoteari %75eko hobaria eta 2023ko kuoteari %50ekoa.

Eta, bestetik, azken udal-kuoteari hobariak emon ahal izango jakoz, udalek eurek 2022 eta 2023 urteetako ordenantza fiskaletan zehazten dabezan ehunekoetan.

Ikusten dozuenez, proposamen honen bidez, Euskadin zerga-figura hori harmonizeteaz gain, Bizkaiko udalen eta Euskadiko gainerako udalen artean sortzen dan bidebakokeria konparatiboa kentzea be proponiduten dogu. Proposamen honegaz, Bizkaiko udalen toki-autonomia eta euren finantzaketa-ahalmena hobetzen doguz, eta, aldi berean, gaur egungo krisi ekonomikoaren esparrua be kontuan hartzen dogu.

Eta honaino gure lehenengo agerraldia. Bertan proposamenaren eta errazoiketearen barri emon deusuegu zehatz-mehatz, eta zuon balorazinoei itxaroten geratuko gara.

Besterik ez, eta eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora De Madariaga Martín. El representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señor Andrade Aurrecoechea, tiene usted la palabra.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea. Egun on guztioi.

Guk ez dogu onartuko Foru Arauaren aldaketa hori aintzat hartzea, argi eta garbi zergen igoera ezkutua dala uste dogulako.

Proposamengileak egin dauen historia baino arean gehiago eginda, 2002an, José María Aznarren gobernuak iragarri eban enpresen zati handi batek Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergea ordaintzeari itxi beharko eutsiela, eta horretarako gitxieneko salbuespen batzuk ezarri ziran, eta, aldi berean, neurri horregaz jasango ebezan diru-sarreraren galereagaitik udalei konpentsetako sistema bat ezarri zan.

2002ko urriaren 11n, Alderdi Popularraren Gobernuak tokiko finantzaketa-sistemea erreformatako proiektu garrantzitsu hori onartu eban Ministroen Kontseiluan. Proiektu erreformista horrek aldaketa ugari egiten ebazan, eta, esan dodan lez, barrikuntza nagusia milioi bat eurotik beherako negozio-zifrea eukien autonomoak eta enpresa txiki eta ertainak zergea ordaintzetik salbuestea zan. Bitxia da, proposamen horrek hasieran Euzko Alderdi Jeltzaleak gobernetan ebazan erakundeetatik kritika gogorrek izan ebazan arren, Ekonomia Itunak salbuespen hori ezarteko edo ez ezarteko aukerea emoten deusku, eta Euskadin, hemen, Bizkaian, eragozpen handi barik ezarri zan, eta Foru Arauan ezarten zana ezarri zan, zehatz-mehatz, baina Euskal Autonomia Erkidegoko araubide erkiderako ezarri zan milioi euroko salbuespena barik, Bizkaian eta Euskadin orokorrean, esan dan lez, milioi bi euroko salbuespena ezarri zan.

Erreforma garrantzitsu horregaz, bi milioi autonomok, profesionalek eta enpresa txikiek eta ertainek 2003an zergea ordaintzeari itxi eutsien. Erreforma haren eraginez, urte haretan zerga hori ordaintzeari itxi eutsien, esaterako, 900.000 merkatarik, 300.000 jatetxe, kafetegi eta taberna baino gehiagok be bai, eraikuntzearen sektoreko 300.000 profesional autonomok, 120.000 enpresaburuk eta manufaktura-profesionalek, 200.000 garraio-enpresarik (60.000 taxista baino gehiagok be bai), eta 350.000 aseguru-kudeatzaile administratibok eta finantzariok.

Zifra horreen atzean langile autonomoak dagoz, enpresaburu txikiak dagoz, eta euren jarduera ekonomikoa garatzeko oztopo zan bidebako zerga bat ordaintzetik libre geratu ziran. Esan dan lez, gero Arabak eta Gipuzkoak bi milioi eurotik milioi batera murriztu eben salbuespen hori, nazinoko araudira egokitzeko. Gipuzkoak 2012an egin eban, EH Bilduren gobernupean, eta Arabak 2016ko azkenetarantza, Euzko Alderdi Jeltzaleko Ramiro Gonzalezen gidaritzapean.

Guk ez dogu zalantzan ipinten bi erakunde horreek murriztu gura izana, baina ez dogu bat egin gura 3 lurraldeak harmonizetako dogun irrikeagaz, fiskalizazioari jagokonez. Arabere gehiago, gure eretxian, ez dago foralismoatik apartekoagoa danik beti harmonizatu gura izatea baino. Bizkaian askatasun fiskala daukagu gura doguna egiteko, eta ez dogu beti gainerako lurraldeakaz harmonizauta egon behar. Baina, gainera, lehen esan dodan lez, horren guztiaren alde txarra zera da: harmonizazio fiskalean oinarrituta aurkezten dozuenean, gure enpresaburuei, gure enpresari txikiei eta merkatariei zerga-kargea handitu egiten deusezuela. Zuek beti dozue zergak igoteko ideologia, badakizue, ez deusagu alkarri aurka egingo; zeuon erispidea daukazue eta gu ez gatoz bat horregaz. Lehenengo eta behin, dinodan lez, gaur autonomoei eta enpresariei zergak igotea proponiduten dozue, salbuesteko gitxienekoa murriztea, hau da, lehen ordaintzen ez eban jentea ordaintzen hasiko da. Gero tasa turistikoa ezartera garozue, ez dakit zer izango dan hurrengo, ba, beharbada, txuletoi bat jateagaitik kobretea. Baina, gainera, proposamengileak esan dauen moduan, udalek ezarri lekiezan kuotak %4 eta %7,5 artean handitzea proponidu da, diru-bilketea gehiago ugaritzeko, enpresaburuen edo merkatarien, taxilarien, profesionalen gaineko presinoa gehiago handitzeko: milioi bat euroko negozio-zifrea, ez etekina.

Dinodan lez, zure proposamena autonomoentzat, enpresa txiki eta ertainentzat labankada bat baino ez da, sano une txarrean. Argiak gora egin dau, energiak, erosketa-saskiak..., eta, gure ustez, ez da gure enpresariei zergak igoteko unea, inondik eta inora. Pandemiagaz sano txarto pasetan ari dira, sano txarto pasetan ari dira, egokitzeko ahalegin izugarria egiten ari dira, eta lagundu egin behar deusegula uste dogu, Bizkaian enpleoa



sortzen eta aberastasuna sortzen lagundu. Halanda ze, guk, dinodan lez, zerga-igoera hori aintzat hartzearen aurka egongo gara. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Andrade Aurrecoechea. El representante del grupo Socialistas Vascos, señor Álvarez Castrejón, tiene usted la palabra.

El Sr. **ÁLVAREZ CASTREJÓN** jaunak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea, mahaikideak, eskerrik asko ostera be.

Ahaldun jaun-androk, itxidazue alde zurretik gogoeta txiki bat egiten; izan be, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga ez da lar ezaguna. Egia esan, anakronismo-maila bat emoten deutsien zirrikitu historiko batzuk agertzen dira bertan. Gure uste apalean, lagunarteko berbakeran esanda, txapa- eta pintura-eskualdixoa behar dau, eta uste dot berandu baino lehen egingo dala.

Gaur egungo testuinguruan kokatzearen, itxi eidazue jatorria eta mamina gogoratzen, horrek herritarrei zer zerga lantzen ari garan hobeto jakitea erraztuko deuselakoan. Toki Ogasunei buruzko bagilaren 30eko 6/1989 Foru Arauak zerga-sistema barri bat sortu eban udal-eremuan, eta bertan kokatzen da, hatan be, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga, tokiko gobernuztat autonomia eta finantza-nahikotasun handiagora lortu gura ebana. Egia esan, zerga horrek aurretik egozan beste zerga batzuk ordeztan dauz eta hareen bategitea litzateke. Gogoratu eizuez Jarduera Ekonomikoen Lizentzia Fiskalaren kasuren bat (merkataritzakoak nahiz industriakoak), Jarduera Profesionalen Lizentzia Fiskala, Erradikazino Zerga, Abereen Kontribuzino Kuota Finkoa, etab., etab. Napoleonen garaiko jatorria daukien zerga batzuei buruz berba egiten jarraitzen dogu.

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren helburua enpresa-jarduera profesional eta artistikoen ustezko irabazien gaineko zerga ezartea zan, hau da, era horretan uko egiten jakon jarduera horreen benetako irabaziak ezarteari, eta, ondorioz, kuotak kalkuletako erosotasuna nagusitzen zan, ez zan beste ezergaitik, eta finantzaketa-bermea be, zerga ordaintzeko ahalmenara egokitzearen aurrean. Esan daigun berregiten ari dan lehenengo testu moltso bat daukala, martiaren 17ko 2/1992 Foru Dekretu Arauemailea, zerga horren zati sakabanatua bateratzen dauena.

Zalantza barik, gaur arte garrantzi gehien izan dauen aldaketea Ganbera honek 2003ko martiaren 26an egin eban Osoko Bilkuran jazo zan, bertan onartu zalako toki-zergen araubideari buruzko Foru Araua. Orduan izan zan jauzi handia, subjektu pasibotik, hau da, mundu guztiak ordaintzetik, hemen behin eta barrero aitatu dan bi milioi euroko salbuespen horretara. Magnitude horreekaz, egia esan, udal-kutxen diru-bilketeak behera egin eban. Urizarbarrena jaunak, orduko Ogasuneko foru-diputaduak, berari egokon batzordean azaldu ebanez, Finantzen Euskal Kontseiluak udalak konpentsetea ebatzi eban, baina aurretik konpentsau beharreko zenbatekoen kuantifikazinoa egin behar ei zan, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan salbuespen hori ezarteari jagokonez. Halanda ze, konpentsazinoa Finantzen Euskal Kontseilu horretan erabagi zan koefiziente bertikalaren arabera egitea, hau da, Eusko Jaurlaritzak egiten eban konpentsazinoari %70,44 ezarten jakon, eta %29,56 Lurralde Historikoen kontura izango zan, eta horreen artean udalak egozan. Azkenik, udalek ez eben diru-kopururik jarri, eta Foru Aldundiek ordaindu behar izan eben hori.

2007an, eredu Ekarpenen Legean sartu zan, koefiziente bertikala murriztuta, konpentsazino horreei lekua egiteko. Egia da bi gorabehera daukazana, 2012an, hain zuzen be, hemen aitatu dana, eta 2016an, Gipuzkoan eta Araban, salbuesitako tasea milioi bat eurora murriztu zan-eta. Bizkaian, udalak konpentsetan jarraitzen dogu. Ez dakit seguru beste

lurralde batzuetako errealidadea zein dan, ez neuke sinistu gura zuzenean edo zeharka beste lurralde historikoetako udalak birritan jasoten ari diranik. Adibideak balio badau, Bilboko Udalak Bizkaiko konpentsazino-zenbateko guztien ia %50 jasoten dau. Hori guztia Bizkaiko udalen eta Euskadiko gainerako udalen arteko ustezko bidebakokeria konparatiboari jagokonez, Elkarrekin Bizkaiak aitutzen dauelako bere arau-ekimenean.

Besterik ez, eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Álvarez Castrejón. La representante del grupo EH Bildu, señora Urkaregi Etxepare, tiene usted la palabra.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta, buenos días de nuevo.

EH Bildu votará a favor de la toma en consideración de esta Proposición de Norma Foral. Estamos totalmente de acuerdo en bajar el máximo exento de 2 millones a 1 millón. De hecho, EH Bildu, entre las enmiendas presentadas al Proyecto de Norma Foral, por la que se aprueban las medidas para el impulso de la reactivación económica, para la incentivación de la aplicación voluntaria del sistema Batuz y otras modificaciones tributarias, que se debatió en estas Juntas Generales en diciembre, figuraba la siguiente enmienda:

En el artículo 18 se modificaba la Norma Foral del Impuesto sobre Actividades Económicas y nuestra enmienda consistía en la modificación del texto de los dos primeros párrafos de la letra h) del apartado 1 del artículo 5, con la siguiente redacción:

“h) Los sujetos pasivos que tengan un volumen de operaciones inferior a 1.000.000 de euros.”

Esto es, lo mismo que se plantea en el artículo 1 de esta Proposición de Norma Foral.

EH Bildu considera que esta medida debe adoptarse de forma inmediata, ya que Bizkaia vuelve a ser una excepción, pero no para bien, sino para favorecer a quienes obtienen beneficios, y para reducir los ingresos de Bizkaia, y en este caso, para reducir los ingresos de los ayuntamientos.

Foru Arau Proposamen honen alde bozkatuko dogu, Bizkaiko Foru Aldundiak jarduera ekonomikoagaitik etekinak lortzen dabezan batzuei emondako aldeko tratuagaz amaitzeko unea da-eta. Izan be, euskaraz esan dodanez, neurri fiskalei buruzko azken Foru Arauan zuzenketa bat aurkeztu genduan, joan dan abenduan Batzar honeetan eztabaidatu genduana.

Horretan, Bizkaia ez dago harmonizauta Arabagaz eta Gipuzkoagaz; izan be, hemen fiskalidadari buruzko eztabaida bat edegiten dan baxotxean esaten jaku hemen ezin dala ezer egin ZKO (Zerga Koordinazinarako Organoa) ez badao, Arabagaz eta Gipuzkoagaz harmonizauta egon behar dalako; ba, horretan ez gagoz harmonizauta Arabagaz eta Gipuzkoagaz. Esan dan lez, aspalditik ezarten dabe zergea milioi bateko eragiketen bolumenetik aurrera, eta ez 2 milioitik aurrera, Bizkaian dan moduan. Baina harmonizazino falta horrek eragin negatiboa dauka Bizkaiko udalen diru-sarreretan. Horregaitik, uste dogu preminazkoa dala muga hori aldatzea zerga hori kobrau daiten.

Alderdi Sozialistearen ordezkariak esan dau zerga hori, ez dakit zelan esan dauen, gainbegiratu edo aldatu egin behar dala. Hara, guk uste dogu Foru Arau Proposamen honek aukerea emon leikigula aspalditik beharrezkoa zan eztabaida hori edegiteko, eta nik gogoratzen dot aurreko legegintzaldian be arazo bat izan zala zerga honegaz, Foru Arau honegaz. Eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasunak Foru Arau hau, zerga hau berrikusteko konpromisoa hartu eban, edo horrelan ulertu genduan. Baina denporea aurrera doa eta ez da ezer egin. Halanda ze, gure ustez, orain daukagu horretarako aukerea.

En la proposición se modifican los coeficientes que pueden establecer los ayuntamientos y creemos que sería conveniente analizar y modificar tanto los coeficientes como todo el contenido de la Norma Foral junto con los ayuntamientos; pero ahora no se discute ni se vota su contenido. Esta vez nos toca decidir sobre la toma en consideración de la proposición. Y una vez se abra el proceso, tendremos la oportunidad de compartir todo esto con los ayuntamientos.

También tenemos dudas sobre las bonificaciones que se plantean y sobre cuándo deben adaptar las ordenanzas fiscales los ayuntamientos, pero como se ha dicho, todas estas cuestiones deben ser debatidas cuando se debata la Proposición de Norma Foral y no ahora.

Garrantzitsua erexten deusagu udal-zerga bati buruzko Foru Arau hau udalakaz eztabaidatzeari eta partekatzeari, erreformau daiten, baina hori Arau Proposamen honen eztabaida-prozesuan egin daiteke, eta egin behar da. Gaur eztabaidatuko doguna zera da: Foru Arau Proposamena izapidetzeraz onartu edo ez, eta, zentzun horretan, EH Bilduk aldeko botoa emongo dau.

Desde hace tiempo algunos ayuntamientos han solicitado la revisión de la normativa del Impuesto sobre la Actividad Económica y la armonización con Araba y Gipuzkoa del límite de implantación. Y la Propuesta de Norma Foral presentada por Elkarrekin Bizkaia nos brinda la posibilidad de llevarlo a cabo. Por eso, votaremos a favor y en el proceso de debate impulsaremos la participación de los ayuntamientos.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Urkaregi Etxepare. Y el representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor Lerma Mentxaka, tiene usted la palabra.

El Sr. **LERMA MENTXAKA** jaunak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta, y buenos días a todos/as, tanto a los/as junteros/as, como a las personas que siguen este Pleno, personas invitadas, periodistas o ciudadanos/as.

Bueno, lo primero que quiero manifestar es que nuestro voto será en contra. Que el voto de nuestro grupo será en contra, que no aprobaremos o apoyaremos esta propuesta realizada o presentada por el grupo Elkarrekin Bizkaia, porque creemos que no es el momento adecuado para ello. Al fin y al cabo, porque la propuesta supondría la modificación de una norma fiscal y, en nuestra opinión, no se ha realizado la debida profunda reflexión en torno a ese tributo, o no se ha analizado en su conjunto ese impuesto, y por ello votaremos en contra.

Egia esan, toki-zergen azterketea bera, aldaketea eta egokitzapena Foru Aldundiaren planen barruan dago, eta agintaldi honen barruan egin beharreko jarduketa-planen barruan dago, legegintzaldi honetan bertan, kontuan hartu barik pandemia-egoereak beharbada

erritmoak aldatu egin dauzala, duda barik, eta orain arte ahaleginak beste zeregin batzuetara bideratu dirala.

Gure eretxian, osotasunean aztertzen hasi behar da, beharrezkoa da toki-zerga gehienak, toki-zergen araudia, eta, batez be, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergea aztertzea. Eta, horrezaz gain, adierazoten dot beharrezkoa dala gainerako foru-lurralde historikoakaz harmonizatea, Euskadiko Zerga Koordinazinarako Organoaren esparruan.

Eta, egia esan, ez dira egin behar zati baten aldaketak edo partzialak izan leitekezan aldaketak; eta udaletan, gure toki-erakundeetan finantza-nahikotasuna ziurtatzeko helburuagaz, beste parte-hartzaile batzuek adierazotako alderdi horreekaz bat gatoz. Egia esan, azken urteetan behin eta barriro egin dira aldaketa zehatzak tokiko hainbat tribututan. Beharbada, azkena, horren garrantziagaitik, garrantzi politikoagaitik eta komunikabideetan izan eban eraginagaitik, Uri-lurren Balioaren Gehikuntzearen gaineko Zergea auzitegien erispideetara egokitzea izan zan, Udal Plusbalioarena.

Eta adibidetzat jarri dot, hain zuzen be, auzitegiek ezarri ebezan erispideetara egokitzeko aldaketa hori egin ondoren, eta zerga-araudiaren idazketeari berari beharrezko segurtasun juridikoa emoteko, bai zerga hori ordaintzera behartuta dagoan subjektu pasiboarentzat, zergadunarentzat, bai hori likidau behar daben toki-erakundeentzat, udalentsat, Zerga Koordinazinarako Organoan ordeztuta egozan erakundeek erakunde arteko lantalde tekniko bat eratzea erabagi eben, eta bertan Autonomia Erkidegoaren eremuko 3 erakunde-mailak egozan ordeztuta. Lantalde hori eratu zan zergearen erreforma harmonizauaren proposamena egiteko, zerga hori bere osotasunean aztertzeke, berbarako, eta zergearen erreforma harmonizauaren proposamena egiteko. Izan be, gure ustez, behar-beharrezkoa da zerga bakotxa osotasunean aztertzea, baita zerga guztiak osotasunean aztertzea be, udalei finantza-nahikotasuna bermatzeko eta emoteko.

Horregaitik, ez dogu egokitzen jotzen orain aldaketa partzial-partzial bati hasierara emotea, sano partziala; izan be, sano helburu argiak eta sano zehatzak daukaz, baina ez dau zerga osoa aztertzen, eta aurka bozkatuko dogu.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Lerma Mentxaka. Y pasaremos al turno de réplicas. Para ello, la representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señora De Madariaga Martín, tiene usted la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Tira, parte hartuko dot taldeen parte-hartzearen hurrenkerearen arabera. Andrade jaunari jagokonez, ezkutuko zergen igoerea dala esan dau. Hara, zerga-igoerea da, bai, Andrade jauna. Ez dakit zelan sartzen dan zure diskursoaren barruan “krisi ekonomikoan gagoz” esatea, eta Alderdi Popularrari entzun deusagu esaten, besteak beste, “udalek finantzaketa gehiago behar dabe, Aldundiak zertan dihardu, zertan ari da, hau ezin da izan...; baina ez dogu zor gehiago gura, zergak jatsi gura doguz”. Ayuso andrearen eredu fiskala gura dozue, eta nondik atera gura dozue udal finantzaketarako hain garrantzitsua ei dan dirua? Nik ez dot ondo-ondo ulertzen zure jarrera, egia esan.

Álvarez Castrejón jaunak defendidu dauen Alderdi Sozialistearen jarrerari jagokonez, esan dozu Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergeak txapa- eta pintura-eskualditxo bat behar dauela. Hara, hauxe izan leiteke une egokia, esku-eskura daukazue. Izan be, ezpabere, zer da gertatzen dana? Ba txapuza horregaz jarraituko dogula, koefiziente bertikalaren bidez, Bizkaiko udalei zelan eusten deutsegun ikusteko, eta euren zerbitzu publikoak finantzau ahal

izateko aukereari zelan eusten deusagun ikusteko. Izan be, gaur hementxe dauka erantzuna Alderdi Sozialistek, eta aprobetxau leike.

Eta Lerma jaunari, parkatu, baina sano gatxa da dinozuna ulertzea. Zera dinozu “zerga honi eskua sartu behar jako, baina orain ez da egokia”. Horixe da EAJk uneoro darabilen diskursoa legealdi honetan. “Zerga-erreforma egin behar da, aztertzen ari gara, baina datuak behar doguz”. Baina zenbat denpora behar dozue gauzak aztertzeko lanari ekin ahal izan degiozuen, egin behar dozuena egiteko? Horixe da Euzko Alderdi Jeltzaleagaz gaia. “Ez, legealdi honetan egingo dogu”. Zenbat denpora geratzen jako Gobernu honi legealdi honetan? Urte hau eta hurrengoaren zati bat geratzen jakoz. Noiz hasi gura dozue lan hori egiten? Ez dozue zatien aldaketarik onartu gura, ez, seguruenik zuek proponiduten dozuen aldaketea ez da zatien aldaketea izango, beharbada gurea izango da.

Nik uste dot sano eroso zagozela Bizkaiko dumping fiskalaren egoera horri eusten. Urkullu jauna be kexau egiten zan horretaz, Ayuso andreak Madrilen zergak jatsiko zirala esan ebanean. Hortxe sentiduten zarie gustura, Euskadiko gainerako lurraldeei dumping fiskala egiten.

Horrexegaitik, hain zuzen be, harmonizazio hori egitearen aukerea aurkezten ari gara. Baina, gainera, Euzko Alderdi Jeltzalearen jarrera hondinokarren mingarriagoa dala uste dogu. Izan be, normalean udal-autonomia, tokiko autonomia defendiduten dozuenok, orain ez dozue defendiduten, Bizkaiko udalontzat finantzaketa-maila egoki eta onargarriari eutsi gura jakonean. Orain zuei ez jatzue hori komenidu. Nik..., benetan, sano gatxa da ulertzea zein dan defendiduten dozuen jarrera. Ikusten dodana zera da, Lerma jaunak esan deuskunagaitik...

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Vaya finalizando, por favor.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Ez daukazue argudio sendo bakar bat be gaur ezetz esateko, zeuok be onartzen dozuelako aldaketa hori egin behar dala.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora De Madariaga Martín. El representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señor Andrade Aurrecoechea, tiene usted la palabra.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea.

Ba, hain zuzen be, gu ez gatoz bat zergen igoereagaz eta ez dogu eretxi bera izango. Zerbitzuak emoteko zelan biltzen da gehiago? Izan be, nahikoa egiaztata eta probata dago gehiago biltzen dala aberastasuna sortuz, enpleoa sortuz, enpresei, merkatariei, autonomoei lagunduz, aberastasuna sortuz, hori egiaztata dago. Alderdi Popularrak gobernetan dauzan 5 erkidegoak dira zerga gehien biltzen ari diranak, zergak igon barik. Alderantziz, zergak jatsita.

Halanda ze, ez da beharrezkoa zergak igotea, ezpada zergak jastea eta aberastasuna sortzea, eta jenteak bere enpleoa sortu dagiala, jenteak lan egin dagiala, enpresariak beharginak kontratau dagiezala; izan be, zergapetzen dan jentearen oinarria areagotu ezkerro, zergak gitxiago ordainduta, gehiago bildu leiteke, hori nahiko egiaztata dago.

Ulertzen dot zuok eta EH Bildu, eta beste alderdiren bat be, ez etortea bat Alderdi Popularraren jarrereagaz, baina gure erispidea da, eta, beraz, gure enpresari eta merkatariari zerga-igoerea ekarriko deuten proposamenagaz ez gatoz bat. Esan dodan moduan, sano txarto pasetan ari dira, eta ez da une egokia zera esateko “hemendik aurrera ordaindu egingo dozue”. Barrero dinot, milioi batera jastea negozio-zifrea, salmenta-zifrea, ez etekinarena, ezpada negozio-zifrea, salmenta-zifrea. Horrek ez dau esan gura milioi bat euro irabazi dabela, hau da, jente aberatsa aitutzen dozue. Aberatsa ez, milioi bat saldu ahal izan dabe, eta irabazi edo galdu egin ahal izan dabe.

EH Bildugaz eta proposamengileakaz ados gagoz zerga-erreformaren beharragaz. Legealdi oso hau behintzat badarogau horretaz berba egiten Ganbera honetan, beharrezkoa dala hori aztertzea, egingo zala, Ganbera honetara sekula be heltzen ez diran azken zerga-aldaketei buruz berba egiten.

Baina guk zuok proponiduten dozuaren kontrakoa gura dogu, errespetu osoaz. Guk beste erispide bat daukagu; badakizue Oinordetzen gaineko Zerga kentzea proponiduten doguna, Ondarearen gaineko Zerga kentzea, Soziedadeen gaineko Zerga jastea, eta Bizkaiko soldatapeko gehienei PFEZa jastea. Gogorarazo gura deusuet azken aurrekontuetan Errentearen gaineko Zerga igon egin dala, PFEZaren taulak ez diralako deflatau Kontsumoko Prezioen Indizea (KPI) igon dan neurri berean. Halanda ze, bizkaitarrak zerga gehiago ordaintzen ari dira. Guk eskua luzatuta daukagu akordio batera eta termino horretan joango dan erreforma fiskal batera heltzeko, eta gobernu-taldeak badaki. Uste dogu kobretako oinarria zabaldu behar dala, ez zergak igon; gu hor egongo gara, eta, beraz, ez gatoz bat gaur ekarten diran lako zerga-ippingiakaz edo zerga-igoerakaz.

Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Andrade Aurrecoechea. El representante del grupo Socialistas Vascos, señor Álvarez Castrejón, tiene usted la palabra.

El Sr. **ÁLVAREZ CASTREJÓN** jaunak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea, eskerrrik asko barriro.

Bai, horrelan da, lagunarteko esamolde bat erabili dot, uste dot itxiko deustazuela. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga honek txapa- eta pintura-eskualditxo bat behar dauela esan dot. Horrezaz gainera, berandu baino lehen egingo dala esan dot. Uste dot, eta Lerma jaunari estimu handiz entzun deusat, Aldundiak daukazan planen barruan dagoala, Gobernu-taldeak ontzat emongo dauzan erispideakaz egingo dala eta Ganbera honetara ekarri ahal izango dala gu guztiok jasoteko moduan dagoanean.

Hara, ba, ez dakit gustauko jatzun, Andrade jauna, ez dakit Aznar jaunari gustauko ete jakon lehenengo milioi bat eurora jasteko asmoari ederrestea eta, gero, milioi horregaz gaitasunak galtzen dirala, etab., etab. esatea. Ez dakit, uste dot Alderdi Popularra gobernetan ari dan erkidegoek be zeozertxo gehiago inbertidu beharko leukiela gizarte-zerbitzuetan. Ez daitezala bakar-bakarrik mugatu dirurik ez batzera, ez daitezala mugatu dirurik ez batzera aberatsenei zerga barregarriak kobranta edo zergarik ez kobranta. Baina, tira, hori beste kontu bat da.

Izan be, De Madariaga andrea, egia da, egia da, hemen gagoz, baina begira, aldatu leitekena aldatzeko asmoa daukagu, baina, printzipioz, gure gain hartzen dogu Bizkaian lehiakortasunari eusteko eta Bizkaia lehiakorrari eusteko erantzukizuna, Bizkaia zerbitzu duinak, ahalik eta onenak euki daizan erantzukizuna. Unea heltzen danean egingo dogu,

horregaitik gara alderdi arduratsua. Emoten dau astiro goazala, baina urrats oso irmeagaz goaz, sinistu eidazu, guk gobernu-bokazinoa daukagu, tradizinoa be badaukagula esaten ausartuko nintzateke. Ba, alde hori dago Gobernuan egotearen eta oposizinoan egotearen artean, edo gobernu-bokazinoa izatearen edo oposizino-bokazinoa izatearen artean. Askoz errazagoa da oposizinoan egotea, ez eizu zalantzarik izan.

Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Álvarez Castrejón. La representante del grupo Euskal Herria Bildu, señora Urkaregi Etxepare, tiene usted la palabra.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días de nuevo.

Lo he mencionado antes. En la anterior legislatura hubo un compromiso para revisar el Impuesto de Actividades Económicas, pero no se ha hecho nada. Han pasado los años y no se ha hecho nada. El representante del PNV, el señor Lerma, ha traído aquí el ejemplo de la plusvalía, pero ahí ocurrió algo similar. Era evidente que había que modificar, pasaron los años y no se llevó a cabo nada, y, al final, se ha hecho ahora, pero porque hubo una nueva sentencia y no existía otra alternativa, porque si no, los ayuntamientos no podían cobrar ese impuesto. Entonces, al final se hizo una modificación urgente, y ahora sí se está haciendo una nueva norma foral, pero ¿para cuándo tendremos esa nueva norma foral? Ya veremos.

La siguiente frase en castellano resume muy bien la postura del PNV: “Ni hacer, ni dejar hacer”. Jarrera horri eusten deutsie Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bizkaiko Ogasunak hemen erreforma fiskalaren inguruan berba egiten danean, proponduten dan erreforma edozein dala be.

La Diputación no promueve la modificación de la normativa de los impuestos municipales. Pero cuando un grupo juntero presenta una propuesta de norma foral como esta, se vota en contra, y se dice, lo ha dicho el señor Lerma, sí, y también el representante del PSE, zera, hara, “egingo da”. Baina “egingo da” hori zehaztubakoa dan ezkerro, ez dakigu noiz “egingo dan”. Izan be, egia esan, ez dau emoten Bizkaiko Aldundiak ezelako asmorik daukanik Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergea aldatzeko, ezta beste erreforma fiskalik aldatzeko be. Halanda ze, hemen egingo dala esatea..., ez dakit zertan sinistea lez da; izan be, benetan..., yo creo que es evidente que se ve que no hay voluntad para hacer frente a ese debate real. Y no hay ningún argumento, señor Lerma. El argumento que normalmente se utiliza es que hay que armonizar, pero claro, en este caso la propuesta es para armonizar, pero en este caso no existe la necesidad de armonizar, y, entonces, el único argumento es, ba, “egingo da”, porque, al parecer, la Diputación tiene la voluntad para ello, pero no creemos que lo vaya a hacer.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Urkaregi Etxepare. Y para finalizar con el debate, el representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor Lerma Mentxaka, tiene usted la palabra.

El Sr. **LERMA MENTXAKA** jaunak: Sí, muchas gracias de nuevo.

Agirikoa da egingo dana; zelan ez da egingo, ba! Foru Aldundiaren planak dagoz, Ogasunarenak, hain zuzen be, neuk ez badot asmatu. Hau da, agintaldiaren hasieran, 2019ko urriaren 14ko batzordean, José María Iruarizaga Ogasuneko diputaduak, bere agerraldian, legegintzaldi honetarako Sailak eukazan lehentasunak izan ebazan berbabide, eta bilkura horren barruan aitatu eban daborduko hainbat zerga aldatuta egozala, Soziedadeen gaineko Zergea eta beste batzuk (eta horreen emaitzak ebaluau egin beharko doguz) eta berenberegi honakoa esan eban: “legegintzaldi honetan zehar tokiko zergapetzeari helduko jako, batez be Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergeari jagokonez, eta hori guztia ahaztu barik zerga-politika bat garatu behar dogula, euskal administrazino publikoek ondoizate egoereari, alkartasunari eta justizia sozialari eutsi degieen”. Euskal administrazino publiko guztiek, baita toki-erakundeek be. Duda barik.

Toki-zergen azterketea egingo da, jakina, baita zerga horreetako bakotxaren aldaketea be, jagokon guztian, alderdi askoz be orokorragoetan, ez hain zehatzetan, ez bakarrik gaur ekarri diran lako alderdi zehatzetan.

Eta, jakina, kontua ez da dumping egitea. Guk, Euzko Alderdi Jeltzaleko ordezkariok, ez dogu inoiz dumping fiskalik egiten, ez dogu inoiz egin. Arabere gehiago, alde bakarretik ez jardutea defendiduten dogu, beharrezkoa dan koordinazino barik ez jardutea defendiduten dogu, zergak harmonizetea, eta Zerga Koordinazinorako Organoaren esparruan egiten dan lana defendiduten dogu.

Halanda ze, aldaketak 3 lurraldeen arteko koordinazinoan egitea defendiduten dogu, Zerga Koordinazinorako Organoaren eremu horretan, eta 3 erakunde-mailen parte-hartzeagaz. Benetan, hain zuzen be, alde bakarretik jardutea ez dala ahazten uste dogu, eta nire aurretik berba egin dauenak puntu honetan gogoratu dauen moduan, Alderdi Sozialistearen ordezkariak, bozeroaleak, 2007an onartu zan Ekarpenen Legearen ondorioz gaur egun indarrean dagoan finantzaketa-ereduan udalei emon beharreko konpentsazinoa ezarri zan, partaidetza-ereduaren eta Udalkutxaren bidez. Ez daigun pentsau hona ekarri dan planteamentuak zuzenean udalentsako diru-sarrera handiagoa ekarriko dauenik, hori be ez da-eta horrelan.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Lerma Mentxaka.

Y una vez concluido el debate, procederemos a la votación para la toma en consideración o no de la iniciativa. ¿Votos a favor? ¿Votos en contra? No hay abstenciones.

Por lo tanto, el resultado es el siguiente: se han emitido 51 votos en total. Han sido 16 los votos favorables a la toma en consideración; votos en contra, 35. No ha habido ninguna abstención. Por consiguiente, no se toma en consideración la iniciativa.

El cuarto punto del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

3.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Moción derivada de Interpelación ([R.E.11/E/2021/0002879](https://www.euzko-leku.org/interpelaciones/2021/0002879))

3.- Honako idatzi hau aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Itaunetik eratorritako Mozinoa ([11/E/2021/0002879SE](https://www.euzko-leku.org/mozinoak/2021/0002879SE))



**Autor:** Arriola Alzola, Iratxe (EHB)

**Asunto:** Situación de la actividad forestal.

**Documento Principal:**  
[\(R.E.11/E/2021/0002879\)](#),[\(R.E.11/E/2021/0003632\)](#)

**Boletines:** [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (46A), [Enmiendas: Admisión a trámite](#) (46B)

**Expediente:** [\(11/B/20/0002846\)](#)

**Egilea:** Arriola Alzola, Iratxe (EHB)

**Gaia:** Basogintzaren egoera

**Dokumentu Nagusia:**  
[\(11/E/2021/0002879SE\)](#),[\(11/E/2021/0003632SE\)](#)

**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (46A), [Zuzenketa-eskeak: Izapidetzeko onartzea](#) (46B)

**Espedientea:** [\(11/B/20/0002846\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Corresponde el turno a la juntera que ha presentado la iniciativa. Por lo tanto, señora Arriola Alzola, tiene usted la palabra.

La Sra. **ARRIOLA ALZOLA** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as.

Hoy traemos aquí una moción relativa a la actividad forestal. No se trata de un tema nuevo. Hemos hablado mucho de la actividad forestal, hemos presentado muchas iniciativas, y también lo han hecho otros grupos. Pero la cuestión es que sí existe un cambio, y es un debate que cada vez es más extenso en la calle, una cuestión que cada vez, aparece más a menudo en los medios de comunicación, y, además, hay otro cambio. Se trata de que, en el pleno de Política General del año 2021, el Diputado General Unai Rementeria anunció varias medidas con respecto a este tema, entre las cuales manifestó que se aplicaría una moratoria al eucalipto, que se adquirirían terrenos forestales por valor de 4 millones de euros, que se crearían unos tránsitos forestales o corredores ecológicos y que se revisaría la Norma Foral de Montes.

Por lo tanto, lo único que pretendemos con esta moción es recordar esos compromisos, concretarlos, poner el termómetro para ver hasta dónde se va a avanzar, si lo que anunció la Diputación es simplemente un maquillaje, o si hay un cambio de dirección en esta Diputación. Queremos concretar y aclarar los conceptos, porque a menudo se confunde la definición de bosque de conservación, de bosque productivo. Se nos ha dicho a menudo que no queremos ningún bosque productivo, y no es eso; sí queremos bosque productivo, y queremos un sector vivo, y queremos la creación de empleo, y, para eso, es evidente que la moratoria por sí sola no es suficiente y que habrá que adoptar otras medidas, y queríamos saber qué otras medidas se van a adoptar para fomentar un territorio y un sector vivo ligado al bosque.

Existe una industria sin desarrollar al respecto, relacionada con la madera de calidad, para la creación de empleo, que en lugar de desarrollar una actividad forestal a corto plazo lo haga con una visión de largo alcance que preserve el territorio, una alternativa viable a medio plazo para las y los baserritarras, y llevar al mercado madera y producto de calidad, y esa transición, lo hemos dicho mil veces, no se puede dejar al albur de particulares. Y hemos dicho miles de veces que los módulos de subvenciones que maneja hoy en día la Diputación no son suficientes para eso y también hemos dicho por qué, y lo volveremos a decir, porque se trata de uno de los puntos de esta moción. Se requieren 1.100 árboles por hectárea para realizar un bosque productivo cercano a la naturaleza, mientras que en sus módulos la densidad es de 600 árboles por hectárea; la subvención de los módulos es de entre 1.800 € y 2.000 € por hectárea, cuando para esta actividad forestal el coste es más de 5.000 € por hectárea. Por lo tanto, solicitamos que se revise también eso para ofrecer alternativas, alternativas al sector y a la producción.

Y tampoco admitimos la contabilización del eucalipto como hoja de bosque ancha o caduca. El señor Rementería dijo que en Bizkaia el 60% era terreno forestal, lo cual no es correcto. Si no separamos el bosque de las plantaciones de árboles, partimos de un mal diagnóstico. En el mapa forestal de 2020, publicado por ustedes con datos de 2018, se dice que existen en Bizkaia 73.419 hectáreas de coníferas, 20.506 hectáreas de eucalipto y 31.606 hectáreas de bosque autóctono. Por lo tanto, el bosque autóctono representa el 24% del total y no el 60%. En fin, entrando en la moción, creemos que esta moción será aprobada, creemos que se aceptará, no tenemos ninguna duda de ello, porque se trata únicamente del desarrollo de lo que ustedes anunciaron.

¿Qué es lo que dice el primer punto? Transformar a bosque autóctono las plantaciones de pino y eucalipto en terrenos propiedad de la Diputación. Es lógico, si aplico una moratoria, tendré que llevar a cabo cosas como Diputación, para ser coherente con las políticas.

En segundo lugar, ayudar a los ayuntamientos para la realización de planes de ordenación forestal en sus montes públicos y para la promoción de bosques autóctonos y bosques productivos cercanos a la naturaleza. ¿Por qué decimos ayudar? Porque a menudo se han puesto trabas por parte de la Diputación. Por eso, por dicha razón decimos ayudar, ayudar con esa coherencia. Añadimos a eso la concesión de ayudas también a los ayuntamientos, para la adquisición de suelos forestales. Sabemos que este punto puede no gustarles, porque hasta la fecha y en las negociaciones que hemos mantenido eso ha constituido para ustedes una línea roja, pero como no han presentado enmiendas, hemos pensado “mira, un paso adelante, estarán de acuerdo, e impulsarán una política coherente”.

El tercer punto, el que se ha mencionado antes. Que se abra una nueva línea de subvenciones para particulares para que se haga realidad la financiación al 100% de los bosques productivos cercanos a la naturaleza. ¿Por qué? Para no dejar en manos de particulares la transición. Lo dicho, la moratoria no es suficiente, hay que ofrecer alternativas, también para la producción, y para ello es este tercer punto.

Cuarto. Trasladar a un plan este tránsito a bosques autóctonos. Aquí no hemos aceptado la enmienda presentada por Elkarrekin Bizkaia, pero diremos por qué, porque nosotros/as decíamos “en coordinación con los ayuntamientos”. Pero el tránsito, el bosque autóctono, en castellano es “corredor de bosques autóctonos”. Y creemos que quizás en la traducción no ha quedado claro, y por eso no lo vamos a aceptar.

En el quinto punto, marcamos unos criterios en sus planes, y basados en los planes del Gobierno Vasco; por lo tanto, ahí también todo bien.

Y en el sexto punto, que la moratoria del eucalipto se apruebe antes de finalizar el año 2021. Tal vez esta moción no llegue a tiempo, y tal vez esto no tenga sentido, pero, en todo caso, que se apruebe cuanto antes, para que no suceda un efecto boomerang y que desde que se anunció hasta que entra en vigor la gente continúe con esas plantaciones.

Por consiguiente, esto no solucionará todos los problemas de la actividad forestal, es una moción humilde, en coherencia un poco con lo que ustedes han manifestado y para que se den unos pasos concretos en este sentido, y, bueno, también queríamos ofrecer nuestra mano. Para la revisión de la Norma Foral de Montes que ustedes anunciaron EH Bildu presentó su propuesta en la anterior legislatura, ahí está, puede tratarse de un borrador para trabajar conjuntamente, anímense en abrir una mesa con todos los grupos, también abiertamente con la sociedad para que se den avances en este sentido. A ver si este nuevo año iniciamos con consensos y no con los hábitos anteriores. Por consiguiente, esperamos sus valoraciones.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Arriola Alzola. El grupo Elkarrekin Bizkaia presentó una enmienda. Por lo tanto, señor Fernández Medrano, tiene usted la palabra.

El Sr. **FERNÁNDEZ MEDRANO** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta, buenos días a todos/as.

Nire aurretik berba egin dauenak esan deustan moduan, edo esan dauen moduan, egia da itaunetik eratorritako mozinoa izapidetzen tardau izanak puntuetako baten batek ez daukana zentzun handirik dagoan moduan idatzita, eta horren adibide da eukaliptoaren moratoriaren gaia, esaterako. Izan be, alegazinoetarako epea igaro dan lez, uste dogu abiarazoteko prest egongo dala.

Egia da; eta, gainera, 2022an gagoz, eta mozinoak 2021aren amaierarako eskatzen eban; egia da hori atxakia izan leitekena. Izan be, gure basoen irudiaz, datuez eta azalerez berba egin dogu moratoriaren aitamenak bakarrik, edo eztabaida publikoan agertu izanak baso-lurren jaubeen errealidadean eta ohituretan izan dauen indarraz berba egiteko. 2019an izandako eukaliptoen aztoramenaren aurrean (izan be, orduan landatu zanaren %60 eukaliptoa zan), 2020an landatutakoaren %30 baino ez zan eukaliptoa

Baso Dirulaguntzei buruzko Dekretuaren inguruan eskatu jakun agerraldi baten esan genduan lez, gure mendien eta basoen berehalako errealidadea ez dabe foru-araudiek bakarrik erakusten. Horrezaz gain, alderdi pedagogiko bat be badago Aldundiak gai horreei buruz egiten dauzan zeregin guztietan, eta, zentzun horretan, Aldundiaren lanaren alderdi pedagogiko horreetan mozinoak dakarzan eta interesgarriak iruditzen jakuzan puntuak aintzat hartzen doguz. Kontua da foru-titulartasuneko mendiak eredu bihurtzea eta baso autoktonoak sustatzeko erabiltea. Hori udalerrientzako laguntza ekonomiko eta tekniko baten bidez egin daitela, euren mendien antolamenduan gauza bera egin dagien, neurri hori lehen azaldutakoagaz osogarria eta koherentea dala iruditzen jaku, eta baita gure basoen ereduaren aldaketan udal horreen eretxia be kontuan hartzeagaz.

Mozino hain zabal honetan aurkeztu doguzan zuzenketak adierazo aurretik balorau beharreko bi alderdi geratzen jakuz. Alde batetik, Aldundiak lurra erosterakoan erispide ekologikoagoak sartzea dago, eta beste alde batetik, naturatik hur dagozan baso produktiboak sustatzeko dirulaguntzen lerro bat zabaltzea. Lurra erosterakoan erispide ekologikoagoak sartzeari jagokonez, guztiz bat gatoz, batez be bihar Iraunkortasun Batzordean lurren erosketa horretan erispide bakotzak daukan pisuaz galdetuko dogu-eta. Gure susmoa da, kakotz artean, gehiago dala foru-araudietatik eratorritako ondorioakaitik jaubei emoten jaken konpentsazioa, eta ez, saldu gura izan deuskuen lez, Aldundiaren apustu irrea dala baso autoktonoen alde egitea, etab. Beraz, bihar argituko dogu Batzordean. Edozelan be, erispide ekologikoagoak sartzeari alde gagoz, lurra erosten diranean zertaz ari garan eta zertarako diran ziurtatzeko. Guztiz ados.

Naturatik hur dagoan basogintzea sustatzeko dirulaguntzen lerro bat zabaltzeari jagokonez, guztiz ados gagoz. Izan be, hori bat dator izan dogun jarrereagaz, bai Aurrekontu Orokorretako zuzenketetan, bai Iraunkortasuneko eta Ingurune Naturaleko batzordeetan egin doguzan agerraldietan be. Ingurune naturalean, ingurune natural anitza eta erresistente baten daukazan eraginez gain, beste izaera bateko baso produktibo mueta barrizalea sustatzeko lana interesetan jaku, baso-eremuen izurriteakaz eta gaixotasun desbardinakaz hontsu bizi izan doguzan lako egoerak saihesten lagundu deuskuenak.

Amaitzeko, gure 3 zuzenketak azalduko doguz, eta errazak baina onartzeko modukoak dirala uste dogu. Lehenengoa ohar bat da, parafraasi antzeko bat: foru-titulartasuneko mendiei buruz berba egiten dogunean onura publikoko mendien eta ondare-mendien

argibidetxoa gehitzen dogu. Dakigunez, edo horren eretxia daukagu behintzat, ondare-mendiak lurralde honetako titulartasun publikoko mendien neba-arreba pobreak dira, eta, batzuetan, kaxa baten ahaztuta daukagun objektu handitxoa balira lez erabilten dira. Jakina, Aldundiaren politikea batzukaz edo beste batzukaz hain desbardina izan bada, ez dogu uste bereizketa hori egitea sobran dagoanik; jakina, pentsau zeinkien lez, 500. zenbakiko Ondare-mendia, Zugaztieta jatort burura; tira, atzora arte desbardin tratetan zan ondare-mendi horreetako bat zana, ez bakarrik legeak agintzen dauelako, ezpada Aldundiak mendi horreek kudeatzeko daukan estiloagaitik eta jarrereagaitik be. Ondare-mendien inguruan jarrera-desbardintasun hori dagoan bitartean, uste dot ez dagoala sobran argibidetxo hori aitatztea, eta hori da gure lehenengo zuzenketea, gaur-gaurko eta baita etorkizunerako be.

Mamin gehien bigarren puntuak daukala uste dot, edo interesgarriena izan leiteke. Legegintzaldi honetako esparru ekologikoa ulertu behar da, hau da, legegintzaldiko lehen urterik hona aitatzten ari garan larrialdi klimatikoko adierazpenetako bat da. Gure ustez, laguntza-moduluak eta urteko dirulaguntzen dekretuetan jasotako baso-ibilbideak aldatu eta egokitu egin behar dira, ez bakarrik kopuru aldetik, baso-eremuak karbono-isurbide lez handitzeari jagokonez, ezpada arean gehiago fintzen saiatzeari jagokonez be. Basoen estilo batzuk horregaz lotuago dagoz, edo larrialdi klimatikoaren adierazpenaren aldarrikapen ekologikoakaz gehiago egokitzen dira. Jakina, biodibersidadeari, lurzoruen babesari, irmetasunari eta aberastasunari buruz berba egiten dogu, suteak saihesteari, benetan jasangarriak diran baso-eremuei buruz, eta bizi izan doguzan izurriteak saihesteari buruz. Halanda ze, gure bigarren zuzenketeak zerikusia dauka alderdi kualitatiboa sartzeagaz larrialdi klimatikoaren adierazpenek adierazoten deuskuezan laguntzei buruzko dekretuetan.

Azkenik, argitu beharreko kontu bat egoan hemen, eta gitxi gorabehera Arriola andreak argitu dau. Guk, Igarobide Plana ikusten genduanean, Igarobide Planean udalen eretxia kontuan hartzea, baso-eredu alternatibo baterantza igaroteko plan orokor batez ari garala ulertzen genduan. Beraz, zentzun horretan, uste genduan beharrezkoa zala baso-eremuen jaubeen ahotsa kontuan hartzea, diskurso ekologistearen eta ekonomikoaren edo produktibistearen arteko zatiketa hori zeozelan salbau ahal izateko, gure Bizkaiko mendien errealidadea kontuan hartuta, %75 pribaua da-eta.

Itzulpen horrek, Igarobide Planak, korridore berdea esan gura dauela ulertuta, uste dogu zuzenketa horrek ez daukala zentzunik, nahi-ta uste dogun baso-eremuen jaube diran familiak kontuan hartzea ez dala inoiz sobran egongo. Gure zuzenketen lehenengoa eta bigarrena onartzen dirala uste dogu, eta bestea bertan behera geratzen da, ez daukalako zentzunik zoritxarreko itzulpenagaitik, eta gure botoa EH Bilduren proposamenaren, mozinoaren aldekoa izango da.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Fernández Medrano. El representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señor Andrade Aurrecoechea, tiene usted la palabra.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea.

2021eko maiatzaren Osoko Bilkuran basoen egoerea hobetzeari buruzko mozinoaz jardun genduan Osoko Bilkuren areto honetan, proposamengileak berak ekarrita. Mendi publikoetako eukaliptoak kentzea, eukaliptoen jaubei zerga fiskalak ezartea, laguntza-lerroak ezartea, 15 metroko zerrendan landaredi autoktonoa landatzea eta eztabaida soziala bultzatzea proponiduten zan. Zalantza barik, proposamen harek Ganbera honetan daborduko

aitatu danari erantzuten eutsan, hau da, gizarte-kontzientzia gero eta ahalmentsuagoari, eta horrek onartuarazo deusku edo ez genkianoi ezagutzera emon deusku eukaliptoak sortzen ari dan problematika, batez be Bizkaiko eta Euskal Herriko mendietan, eta Espainia osoan be. Izan be, arazo orokortua da, eta ezarten aritu dan arazo bat da. Nik uste dot ondo etorri dala eztabaida hori edegitea, gainerako herritarrek ezagutu dagien eta hobetzen joan gaitezan.

Orduan, garai haretan problematikeagaz eta ezagutza horregaz bat gentozan, eta gogorarazoten neutsun eukaliptodun mendi horreen atzean egurraren eraldaketan lanean ari diran egur-sektoreko hainbat enpresa dagozala, pinu edo eukalipto horreen eta mendi horreen jaube diran familia asko dagozala, zuretik bizi diranak, bizitzeko modutzat daukienak eta behar dabenak. Halanda ze, edozein aldaketa eurekaz adostu behar zan.

Nik 3 gauza azaltzen neutsuezan. Lehenengo eta behin, akordio bat zuraren sektoreko enpresakaz, familiakaz, eta basoak ekoizten eta manteniduten ari dan jenteeagaz; izan be, akordiorik ez badago eta alde bakarreko erabagiak hartzen badoguz, basoak bertan behera ixtea sortu leiteke, eta emonkorra ez bada, mendi baten jaube izatea ez litzateke produktiboa izango. Era berean, une haretan, 2021eko maiatzean, eukaliptoak desagerrarazoteko moratoria bat ezartea eskatu neban, Galizian ezarten ari diran lakoa, 2021eko maiatzean ezarri zana, eukaliptoak denpora-tarte baten landatzea saihesteko. Eta Euskal Basogintza Plana berrikusteko be eskatu neban, gaur egun gurea 1994-2030ekoa da-eta. Nire ustez, nahitaezkoa da Euskal Basogintza Plana aldatzea, egoera soziala hainbeste aldatu dan ezker, eta aldatzen hasita dagoala uste dot, hortik ulertu dodalakoan nago-eta izapide hori, Legebiltzarrari jagokona, eta ez Ganbera honi.

Sasoi haretan aurkeztu zanean, diputadu andreak zera iragarri eban: dirulaguntza barriek, basogintzarako laguntza barriek, hasieran ez ebezala aintzat hartzen eukaliptoak landatzen ebezanak. Ni ez nengoan ados, ez dodalako uste urte batetik bestera, une batetik bestera, eukaliptoak edo beste edozein zugatz landatzen behar egiten dauen gizon bati esan ahal jakonik bere negoziarako edo bere jarduera ekonomikorako eukazan dirulaguntzak kenduko jakozala, eta ez neban bat egiten horregaz, esan dodan lez, ez dodalako uste alde bakarreko erabagiak hartu behar diranik. Iragarri zan.

Harrezkero, nik uste dot Aldundia urrats onak emoten joan dala. Izan be, hontsu iragarri dau lurak erosten hasiko dala. Dirua arean eskasa da, lau milioi euro, baina, tira, Aldundiak eukaliptoak landatzea saihesteko lurak erosiko ebazala iragarri zan. Eta esan dan lez, moratoria bat ezarriko ei zala iragarri zan. Alegazinoen faseak amaitu dira, eta prentsaurrekoan esan zanaren arabera, 2022ko lehenengo hiruhilekoan aurkeztuko ei zan hemen.

Nire ustez, proposamen egokiak dira, horixe da Aldundia hartzen ari dan bidea, gizartean lehendik egoan arazoaz jaubetu da, eta uste dot bide hori hartzen ari dala. Gaur EH Bilduk dakarren proposamenak neurri baten aldatu egiten dau 2021eko maiatzeko mozinoaren gaia. Mozino haretan, berbarako, eukaliptoen jaubei zerga fiskala ezartea eskatzen zan. Jaungoikoari eskerrak, gaur ez dakarzue proposamen hori, eta hobetu egiten dau arean, nire ustez, egiten ari dana. Arean lekuz kanpo dago; izan be, esan dodan lez, moratoria ezarrita dago, Aldundia urratsak emoten ari da, arazoa onartu dau eta, nire eretxian, orain era egokiagoan egiten ari da, eta, beraz, mozinoa apur bat lekuz kanpo geratzen da.

Gu abstenidu egingo gara, proposameneko gai batzuk zuzenak diralakoan gagozalako; nire ustez, gehiago joan beharko zeunkie Eusko Legebiltzarrerara. Hortik landu behar da Baso Plan barri hori eta beste erakunde batzuk sartu behar dira, udalak, esaterako, edo udalari dirua emon behar jako lurak erosi daizan. Ez dakit horrek zentzun handirik daukan, Aldundiak erosi daizala. Eta ez dakit zergaitik emon gura deusagun udalari, jaubea bera izan arren, gero kudeatu egin behar dauelako, eta mendi bat kudeatzea arazo bat da. Halanda ze, ez dakit fase hori... Bat nator sektorearentzako laguntzakaz, trantsizino horretan dirua emon behar dalako, jakina. Bere mendiak kudeatzeko modua eraldatzen goaz, oso epe luzerako inbersinoez ari gara.

Beraz, laguntzak izan behar dira. Bat nator laguntzen zati horregaz, eta, beraz, alde onak eta negatiboak dagoz. Halanda ze, abstenidu egingo gara.

Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Andrade Aurrecochea. A continuación, el representante del grupo Socialistas Vascos, señor Ortiz Zaballa, tiene usted la palabra.

El Sr. **ORTIZ ZABALLA** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta, buenos días a todos/as.

Itaunetik eratorritako mozino hau daukagu, Euskal Herria Bildu taldeak proponiduta, eta Elkarrekin Bizkaiak zuzenduta, baso-jarduerearen egoerari buruz. Euskal Sozialistok bat gatoz klima-aldaketeagaz daukazuen ardureagaz eta baso-jardureagazko strategiagaz, baina ez gatoz bat horri heltzeko moduagaz. Oстера be Euskal Sozialistok ingurumena eta biodibersidadea babesteko daukagun konpromisoa adierazo gura dogu.

Mozinoan bertan eta aurkeztutako zuzenketetan sartuta, Euskal Sozialistok ezezko botoa emongo dogu, batean zein bestean eskatzen dana Aldundia daborduko egiten ari dalako, zuok eskatzen dozuena baino gehiago be bai. Ixten badeustazue, labur-labur azalduko deusuedaz Bizkaiko Foru Aldundia Bizkaiko baso-jarduerearen egoerea hobetzeko, lurralde bat sustatzeko eta basoari lotutako sektore bizi bat sustatzeko egiten ari dan neurriak, Arriola andrea, neurri zehatzak eta ez makillaje-neurriak, eta Euskal Herria Bilduk eta Elkarrekin Bizkaiak mozinoan eskatzen dabena jasoten dabe.

Alde batetik, Bertoko hainbat Zugatz-muetearen Araubide Bereziari buruzko urriaren 14ko 11/1997 Foru Araua daukagu, eta horrek hostozabal autoktonoak babesteko araubidea ezarten dau. Mendi publikoen kudeaketan, foru-titulartasuneko mendien kudeaketan eta titulartasun publikoko mendien kudeaketan, azken horreen jaube diran udalakaz lankidetzan, ziklo laburreko espezieak txanda luzeko espezieakaz ordeztzen dira, jagokezan antolamendu-planetan eta kudeaketa-tresnetan oinarrituta. Hemen dagoz jasota zuon mozinoaren 1., 2. eta 4. puntuak.

Urteko deialdiko baso-laguntzen plan bat daukagu eta bertan txanda luzeko espezieentzako dirulaguntzen ehuneko handiagoa ezarrita dago, inbersinoaren %100eko dirulaguntza-ehunekoetara heltzen dana. Zuon mozinoaren 3. puntuan eskatzen dozuena jasoten dau.

Basoen bideragarritasuna hobetzeko eta baso-eremuak garatzeko plana, eta bere helburua, hain zuzen be, lurzorua kontserbetea eta biodibersidadea eta ekosistemen funtzionamentu egokia bermatzea da. Eta plan horrek, gainera, kudeaketa jasangarriko plan teknikoak ezartera eta betetera behartzen dau, bertan aurreikusten diran laguntzak jaso ahal izateko. Plan tekniko horreek arriskuan dagozan flora- eta fauna-espezieen errespetua eta babesa jasoten dabe, eta basogintzako ziurtagiri-sisteman sartzen dira, eta urtero ikuskatzen dira.

Basogintzako ziurtagiri-sistemea be badaukagu, kudeaketa jasangarrian oinarritzen dana, eta, horren bidez, baso-kudeaketa jasangarriaren plan teknikoak onartu eta arautzen dira. Kudeaketa jasangarri horren helburua da, besteak beste, higadura handiak saihestea eta arro hidrologikoko ur-harguneak babestea.

Neurri horreetako beste bat da 2007tik hona baso-erabilerearen aldaketea arautzea, aldapearen arabera higadura-arriskurik sortzen ez daben aldaketetara mugatzeko.

Beste neurri bat da Bizkaiko Foru Aldundiak mendiak erostea eta erositako lurzatietan espezie autoktonoak sartzea, eta horretarako lau milioi euro bideratu dira, eta Gobernu Kontseilura aurkeztu dira 1,7 milioi euroko erosketa-eragiketak, 300 hektarea baino gehiago, baldintza batzuk beteten dabean kokapenetan: zabalera handikoak izatea, eta beste azalera publiko batzuk loturea izatea baso autoktonoen korridoreak egiteko. Hartu diran erispideak eta baremazinoa Euskal Basogintza Planean jasoten diranak dira, eta bertan jasota dagoz Euskal Herria Bilduk 5. puntuan eskatzen dauzan erispideak.

Naturagune babestuan edo interes bereziko baten kokatutako lurzatiei emoten jake lehentasuna. Horrezaz gainera, kontuan hartu dira lurzatiei neurri, alkartze edo sakabanatzearen erispideak, mugakideak izatea edo eremua, erosterakoan lehentasuna ezarteko orduan aintzat hartu daitezkan.

Horrezaz guztiaz gain, Bizkaiko Foru Aldundiak Europako SINCERE proiektuan parte hartzen dau. Proiektu horren helburua da basoko ekosistema-zerbitzuak kuantifikatea, ebaluetea eta hornidutea, eta baliabide barritzaileak ezartea hornidura hori bermatzeko, eta zerbitzu ekosistemikoak ordaintzea.

Beste neurri bat basogintzako lanetan makinaren erabilera arautzea da. Aldundiak mugatu egiten dau makineria astunaren erabilera, aldatsen arabera; laguntzak emoterakoan eskuz egindako lanei emoten jake lehentasuna, eta, beraz, balorazino handiagoa lortzen dabe eskuz egindako lanek. Ez eizu esan ezetz, Arriola andrea, horrelan da.

Egia da turismo-tasak beste leku batzuetan be kobretan dirana, bai European, bai Espainiako estaduan. Estadu espainiarreko hurreko adibideak Balear Ugarteetan eta Katalunian daukaguz. Datu bat emotearren, Balear Ugarteetan zuzenean deitzen deusie zerga horri “turismo jasangarriaren zergea” edo “ekotasea”, eta turismo jasangarria eta turismo jasangarriaren gaineko zergearen batzordea bultzatzera bideratuta dago. Eta Kataluniaren kasuan, eta laburtzarren, udalerrri askok turismo-tasearen bidez lortutako baliabideak bideratu dabez turismo arduratsuen helmugearen kalifikazioa lortzeko. Izan be, gure ustez, horixe da kakoa, eta horrantza bideratu behar garala uste dogu, turismo jasangarriaren nazinoarteko printzipioetan oinarritutako turismoa ingurumenagaz eta giza ondoizateagaz bat garatu daiten jarraitu beharreko bide bakarra da-eta.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Rahona Garay. A continuación, la representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señora Martínez Fernández, tiene usted la palabra.

La Sra. **MARTÍNEZ FERNÁNDEZ** andreak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea.

Ondo erraza da ekimen honi ezetz esatea. Izan be, egia esan, nire eretxian, guztiz garaiz kanpoko da. Hori 2017an eztabaidatu zan Eusko Legebiltzarrean, Talde Popularrak babestu eban erdibideko zuzenketa bategaz, hatan be. Eta akordio bat lortzen saiatu zan. Eta badakizue Euskadiko Turismoaren Mahaiak, adituek, eta Eudelek be, udalek... hori baztertu egin dabena. Hau da, sano erraza da ekimen honen aurka bozkatzeko ehunka errazoi aurkitzea. Egia esateko, uste dot ekimen honek nahiko idazketa zakarra daukala, bertan turista batek sortzen dauzan kostu guztiak aitatzen dira-eta. Eta, sortzen dauen aberastasun guztia? Eta jarduera ekonomiko guztia? Eta enpleo guztia? Arabere gehiago gure kasuan, Bizkaian, hain zuzen be, industria hori hondinokarren be hasiera-fasean dagoanean, hazkunde-fasean.

Eta hori baino gehiago, turismoaren industria bere historiako krisirik handiena jasaten ari dan uanean aurkezten dozue. Gastua %43,4 jatsi zan 2020an, eta Barne Produktu Gordinaren eragina, 2,4 puntutan 2019agaz alderatuta. Bizkaian hondino be jatsiera handiagoa izan da, %45,2koa.

Hontsu hasi dan eta hazten joan behar dauen industria baten aurrean gagozanean, zuek bidean oztopoak jartera zatoze, zabalkunde-bideak bilatu beharrean, laguntzak bilatu beharrean, turismoaren sektoreak, gure Lurralde Historikoko beste sektore batzukaz batera, hazkundea eta enpleoa sortzea erraztu dagiala lortu beharrean.

Baina ez da ezer arraroa; esan gura dot ohituta gagozala ezkerak zergak eta penalizazioak baino ez izatea berbabide hainbestetan. Gustauko litxakit zuek nozonoz “sustatu” aditza jokutzen ikastea, benetan be txarto igaro dauen eta igaroten ari dan sektoreari “laguntzea”, hazkundearen bideari barriro ekin degioen, horrek Bizkaiko herritar guztientzako aberastasuna sortzen laguntzen dauelako, jakina.

Eta, gainera, zertarako? Tira, hemen hainbat gauza emon dira. Hontsu zuon kideek proponidu dabe Valentziako Erkidegoan, Compromís-ek, eta hori etxebizitza eskuratzeko modua hobetzeko izango dala adierazo dabe, ingurumenerako be aitatu da, osasuna hobetzeko, edozertarako. Errealidadea zein da? Espainian ezarri da, horrelan da. Orain, jakina, gaur Valentziako Erkidegoan Fitur hasten dan lez, atzeratu egin dabe. Tira, orain, momentuz, hobeto ez badogu horretaz berba egiten, ezta? Izan be, zelan joango gara Fiturrera orain honegaz, sektorearen lehiakortasunari eragiten deuto-eta, argi eta garbi?

Espainian ezarrita dagoan lekuan, Balear Ugarteetan ekotasea deitzen jako, ekotasatik 580.000 euro kontzertu bat babesteko erabili dira. Baina hemen, atzean “jasangarria”, “turismo jasangarria” jarteagaz, dana sartzen da. Bartzelona dinozue; joan dan udabarrian, 10 hoteletatik 6 itxita egozanean, tasa turistikoa igon egin eben. Tira, kudeatzeko modu bat da, administretako modu bat da, eta Alderdi Popularra ez dator bat horregaz, jakina.

Eta helburua darabilezan zerbitzuen barri emotea dala dinoskuzue. Hara, niri gauza asko bururutzen jataz turistek zerbitzu guztiez gozau dagien, eta Bizkaitik gehiago eskaini behar doguz sektore horren hazkundeari lagundu degioen, Bizkaia bisitau leikien jente guztiari harek daukazan ontasunen barri emon degioen. Baina baten bati zera esatea: “zerga bat kobrauko deusut sortzen deustazuzan kostuen barri izan daizun”, ba, egia esan, nahiko deigarria da.

Tira, nire ustez, bada zentzun bat bizitzan, eta politikan be garrantzitsua dana, eta aukerearen zentzuna da. Eta, egia esan, ekimen honi guztiz desegokia eta zentzunbakoa erexten deusat. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Martínez Fernández. El representante del grupo Socialistas Vascos, señor Trimiño Vegas, tiene usted la palabra.

El Sr. **TRIMIÑO VEGAS** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta, buenos días a todos/as.

Guk, talde sozialistek, neurri baten, talde proposamengilea proposamen hori aurkeztera bultzatu dauen espirituagaz bat egin geinke, turismo jasangariaren eta inguruneagazko errespetuaren aldeko ereduia dala ulertzen badogu, eta turisteak, bisitaria, iraunkortasunaren eta ondarearen kontserbazinoaren aldeko ahalegin horretan sartzen badau.

Guk, Batzar Nagusietan turismoaren inguruan sortu diran eztabaidetan, gure lurraldeko kultura- eta natura-ondarea balioan jarri eta babestuko dauen eredu iraunkorra, masifikau bakoa defendidu dogu, esan dogun lez. Eredu horretan, turisten fluxuak eskualde guztietan eta urte osoan zehar banatu behar dirala azpimarratu dogu, baita kalidazeko enpleo egonkorra sortuko dauen turismo-sektorea finkatuko dauen ereduia be, jakina.

Eta hori guztia, hoba ez, sektorean inplikauta dagozan eragile eta erakundeen eskutik garatu behar da. Hori guztia argi daukagu sozialistok, argi dauka Foru Aldundiak, eta Eusko Jaurlaritzeak berak be argi dauka. Baina, kasu zehatz honetan, turismo-zergeari buruzko proposamenari jagokonez, esan behar deusuegu, politikan, bizitzako gauza

guztietan lez, “zer” garrantzitsua bada, “zelan” eta “noiz” be leba handiko kontuak dirala. Halanda ze, ezin dogu nahita alde batera itxi gaur egun bizi dogun krisi-testuingurua, turismoaren sektorea batez be kolpetu dauen krisia, aldez aurretik be jarri diralako mahai gainean hainbat datu, eta, beraz, krisi horrek behartu egiten dauz erakundeak, Bizkaiko Foru Aldundia, hatan be, sektoreari eusteko eta sektorea suspertzen lagunduko daben politikak ezartera, eta berehalako eta etorkizuneko erronkei aurre egiten laguntzera. Erronka horreen artean egiturazko hutsuneak konpontzen saiatzea dago; esate baterako, enpleoaren kalidadearen gaia, lehen aitatu dogun moduan, edo bisitariek emoten dabezan gau eskasak lurraldean.

Eta hori guztia erakundeek egin behar dabe; izan be, zuzenean edo zeharka enpresa, familia eta behargin askoren mende dagoan sektore bat dogu berbabide; izan be, sektore horrek ostalaritzatik hasi eta kulturarainoko sektore zabaletan sortzen dauz beharlekuak, edo sortzen laguntzen dau.

Horregaitik, gure ustez, horrelango une baten, turismo-ereduari buruz gogoetea egiteaz gain, eta sektore horri zuzeneko laguntzak emoteaz edo emon daitezala eskatzeaz gain, koherenteak izan behar gara, eta ulertu behar dogu sektore horreentzako laguntzek ikuspuntu edo ikuspegi globala izan behar dabela, eta, jakina, sektorearentzat onuragarria eta turistentzat erakargarria dan testuinguru bat bultzatu behar dala.

Eta, horregaitik, gure eretxian, propondutako neurri hori ez doa norabide horretan, kontrako norabidean baino. Desegokia da, eta berez azkenaldian sano zigortuta dagoan sektore bati kalte eta oztopo egiten deutso. Gainera, proposamen hori ez dabe udalerriek eskatu, ezta Eudelek, ez sektoreko erakundeek be, eta, aitatu dan lez, Turismo Mahaiak atzera bota dau. Eta uste dogu ezinbestekoa dala eragile horreek guztiak aintzat hartzea horrelango une baten.

Ez gatoz bat, proposamenaren formeagaz be, “zelan” horregaz. Izan be, gure ustez, azalduta dagoan eran, lurraldeen arteko desharmonizazino fiskala ekarriko leuke.

Gure eretxian, horrelango proposamenak Zerga Koordinazinarako Organoan aztertu behar dira, edo, halan bajagoko, Eusko Legebiltzarrean bertan, eta eztabaida horreek ez dira modu independentean sortu behar lurralde historiko bakoitzean.

Horregaitik guztiagaitik, proposamen horren aurka bozkatuko dogu, ez gatozalako bat “zer” kontzeptu horregaz, baina batez be ez gatozalako bat ez “noiz” ezta “zelan” kontzeptuakaz be.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Trimiño Vegas. Y el representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor De Luis Zelaia, tiene usted la palabra.

El Sr. **DE LUIS ZELAIA** jaunak: Muchas gracias. Buenos días a todos/as. Buenos días, señora Presidenta.

Gaur hemen gagoz Elkarrekin Bizkaia taldeak Bizkaiko Lurraldean tasa turistiko bat ezarteari buruz aurkeztu dauen Arauz Besteko Proposamen bat eztabaidatzeko. Zure taldeak behin eta barriro errepetiduten dau gai hori Ganbera desbardinetan, baina eskaera hori egungo testuinguruan kokatu gurako neuke. Gaur, 2022ko urtarrilaren 19an, atzean ia bi urteko pandemia itxi dogunean eta zalantza barik, turismo eta ostalaritza sektoreak izan diranean COVID-19ak eragindako krisiaren kaltetuenetakoak, zuek ostera be, jarduera ekonomiko horreei karga bat ezartea proponduten dozue, eta, eginean-eginean baino ez bada

be, eragina negatiboa izango da. Tasa hori, zalantza barik, oztopo astuna izango da sektorearen etorkizuneko susperraldirako eta lehiakortasunerako. Izan be, pandemiaren olatuen erasoei aurre egiteko erakundeen laguntzea behar izan dauen sektorea dogu, eta hondinokarren be behar dau laguntza hori. Sektore horrek sufriduten jarraitzen dau, eta pandemia honetan murgilduta gagozan ziurbakotasun-testuinguruan ez dauka ziurtasunik ezta bermerik be krisialdi honetatik urteteko.

Horregaitik, Bizkaiko lurraldean turismo-tasea ezarteko proposamen hori guztiz lekuz kanpo dagoala uste dogu, eta sektoreak bere jarduerari eta enpleoari eusteko daukazan gaiztasunakaz sentsibilidade- eta enpatia-faltea erakusten dauela. Ez dot gura gaur egungo egoerea erabili izana interpretatu daitela iraunkortasunagazko interes- eta konpromisogabezia lez, jarduera turistikoaren iraunkortasuna aspalditik dago-eta presente Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatzen dauzan politiketan, programetan eta tresnetan.

Aurreko estrategian, Bizkaiko gizarte osoari irabaziak eta onura sozialak ekarriko eutsazan turismoaren alde egiten zan, eta gogor behar egin da turismo-fluxuen banaketaren oreka handiagoa lortzeko Bizkaia osoan. Horrelan, Aldundia espazioaren eta denporearen desestazionalizazioaren alde dabil beharrean, helmugako kudeatzaileen eta sektoreko enpresen eskutik, eta turismo-fluxu errazionalagoak banatzen dauz lurralde osoan zehar, urteko aldi jakin batzuetan gehien pilotzen dan puntuetan presino txikiagoa egin ahal izateko.

Bizkairako Turismo Estrategia 2030 barriak helmugearen jasangarritasunean eta turismoak 2030 Agendaren Garapen Iraunkorreko Helburuei egiten deuten ekarpenen jarten dau arretea.

Helmugearen kudeaketa jasangarria ez da oinarritzen tasak edo kargak ezartean. Espainiako urietako turismo-helmugen adibideen barri daukagu. Esate baterako, Bartzelonan edo Balearretan, baita Europako helmuga batzuetan be, turismo-tasea izan arren, euren turismo-ereduak sortzen deutsezan jasangarritasun-arazoetako batzuk konpondu barik jarraitzen dabe.

Gure erdua beste bat da, eta Bizkairako Turismo Estrategia barria aintzat hartuta, 2030erako ildo estrategikoak eta jarduera-programak proponiduten ari gara turismoaren iraunkortasuna lortzeko, hiru alderditan: ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa. Horrezaz gainera, ildo eta programa horreek Bizkaiko turismo-industriaren ordezkariak diran Bizkaiko udalerrri eta eskualdeakaz batera egiten ari garan lanaren emaitzea dira, gure gobernantza-ereduaren bitartez, eta informazioa talde politikoen eta gizartearen eskutik be jaso da.

Baina itxi eidazu adierazoten, Benito jauna, gaur egun bizi dogun egoetatik eta testuingurutik harago, eztabaida hau Eusko Legebiltzarrean egin dala daborduko, zure taldeak Legez Besteko Proposamen bat aurkeztu ondoren, 109/2017 proposamena, hatan be, eta aintzat hartu eta aztertu ondoren baztertu egin zan. Eudelek eta Euskadiko Turismo Mahaiak (turismoaren arloan eskumena daukan Eusko Jaurlaritzako Saileko aholkularitza-organoa), alkarregaz egindako hainbat azterlan juridiko, azterketa eta gogoetaren ondoren, aukera hori behin betiko baztertu zan, eta, beharrezkoa izan ezkeru, udalei itxi jaken jarduteko aukerea. Organo horretan parte hartzen dabe, era berean, hiru foru-aldundietako ordezkariak, hiru uriburuetakoko ordezkariak, merkataritza-ganberek, gizarte-eragileak eta turismo-sektoreko eragile nagusiek. Gogoratu behar da garai haretan Gipuzkoa eta Donostiako Udala bakarrik agertu zirala tasa turistiko ezartzearen alde, eta 2021ean Donostian modu pilotuan ezartea proponidu zala, jarduera turistiko indizerik handiena eukan Gipuzkoako udalerrria zalako. Hontsu, eta sano zuzen, Gipuzkoako Batzar Nagusiek uko egin deusie lurraldean tasa turistiko bat ezarteari, uste dabelako, azaldutakoaren haritik, ez dala egokia pandemiak batez be kaltetu dauen sektore bati lotutako zerga bat ezartea.

Esan dodanagaitik, eztabaida hori ez dala existiduten uste dogulako, turismoak Lurraldean daukan pisu espezifikoa %6 ingurukoa dalako eta estresik ez dauelako sortzen, baina batez be sektoreari errespetua deukotsagulako, koherentziagaitik, gure taldeak gaur hemen ezezko botoa emon behar dau. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor De Luis Zelaia. Y pasaremos al turno de réplicas. Para ello, el representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señor Benito Ziluaga, tiene usted la palabra.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak:

Tira, lehenengo eta behin, EH Bilduk aurkeztutako zuzenketea aitatu dot. Egia da ez dodana lehenengo agerraldian aitatu, ez dodalako astirik izan. Hain zuzen be, eta lastimea da, baina ezin dogu onartu. Izan be, logikoa danez, bat gatoz ingurumena kontserbetako eta turismo jasangarriaren alde egiteko helburuagaz. Horretan guztiz ados gagoz, baina ez gatoz bat zerga horregaz bildutakoa horretara bakarrik bideratu behar izateagaz, hau da, ez gatoz bat zerga finalisten kontzeptuagaz. Zerga finalistek zentzuna izan leikie, berbarako, eraginkortasun energetikoagaz: lortzen diran aurrezkiak eraginkortasun energetikoko neurri gehiagotan inbertiduten dira.

Baina zerga honetan bildutakoa turismoa sustatzen jarraitzeko inbertiduteari, nahi-ta jasangarria izan, ez deusagu zentzunik ikusten. Guk, zerga honen diru-bilketea, gainerako zergen bilketakaz jazoten dan lez, diruzaintza komunera joan daitela gura dogu, hau da, Bizkaiko Foru Aldundiko diruzaintza komunera, eta diru hori, tira, une horretan Lurraldeak behar dauena egiteko erabili daitela, hau da, ingurumena berreskuratzeko edo turismo jasangarria bultzatzeko neurriak izan leitekez, edo gizarte-zerbitzuak hobetzeko, edo azpiegiturak hobetzeko neurriak. Ez dogu uste foru-bilketearen zati baten erabilerea mugatu behar dogunik. Horregaitik, ez dogu zuzenketa hori onartuko.

Edozein kasutan be, esan dodan lez, hasierako proposamena da, orain arte Batzar Nagusi honeetan egon ez dan eta, gure eretxian, egokia dan eztabaida bat ekarteko.

Proposamen hau ekarteko unea ez dala aitatu da. Gobernuari eusten deusien bi taldeek eta Alderdi Popularrak esan dabe. Hemen baieztapen batzuk esaten dira, hasieran datu bat bera be berrikusi barik, jakina, ezta? Agirikoa da turismo-sektorea ez dagoana 2019an egoan une berean, baina daborduko turismo-sektorea suspertzen ari da. Eta zuek esan zeinkie, baina ez badakarzue daturik, ba, berbak igesean doaz.

Hemen, azken urteetako gaualdien taula bat daukat, 2019koakaz alderatuta; izan be, gora egin dabe, udan ia ehuneko ehunera heldu da hoteletan, baina aterpetxeetan, kanpinetan edo aterpetxeetan %180tik gorakoa be izan da. Grafiko honetan 2019. urtea 2021. urteagaz alderatu leiteke. Zifrak txikiagoak dira, baina suspertzeko joerea dago, argi eta garbi. Eta Turismoko sailburuak irailaren 27ko prentsa-oharrea adierazo ebanez, abuztuko turismoaren datuen barri izan ondoren, esan geinke Euskadin udaldiak aurreikuspenak gaingitu dauzala, eta 2019ko abuztuan baino zifra handiagoak daukaguzala. Nik ez dot esan gura Turismoko sailburuak sektoreagazko sentsibilidade gitxi daukanik, sektorea suspertzen ari dala dinoanean. Hori horrelan da, Turismoko sailburuak be ezagutzen dauz-eta zifra horreek.

Sektorean eragin negatiboa izango dauela be esan da, eta barrero be, jakina, hemen argudio bat aitutzen da inolako daturik eta azalpenik emon barik, eta, tira, ba bai, egia da zuek dinozelako, baina zoritxarrez, ez. Eta baieztapen hori turismoaren sektorea ezagutzen ez dan seinalea da, edo zergen eragina ez ezagutzearena.



Bisitari bakotzeko batez besteko gastua 511 euro dira bisita bakotzeko. Batez besteko egonaldia ia bi egunekoa da, hau da, turista bakotxak egunean 250 euro gastetan dauz Bizkaira bisitan doanean. Egunean 2 euro ordaintzeak turismoari etorteko gogoia kenduko deusala uste dozue? Tira, zerga 100 eurokoa bada, ba, tira, neuk be badakit ondorio hori izango leukena, ados nago, horrek gogoia kenduko leuskio, neuk be ez neuke kopuru hori promoniduko. 2 euro ezin izango dabez ordaindu? Hara, nik baietz uste dot.

Eta, gainera, galdera bat egingo deusuet, galdera bat itzuliko deusuet: esaidazue turismo-zerga bat ezarteak bisitariet gogoia kentzen deusela probetan dauen azterlan bakar bat, bakarra. Ez dago, ez da existiduten. Ez daukiela inolako eraginik erakusten daben beste azterlan batzuk dagoz, hori bai. Kataluniako Zerga Agentziaren esanetan, barbarako, Kataluniako turismo-tasea ezarri zanetik bisitarien kopuruak ez dira jatsi, ezpada igon. Jakina, ez zergearen eraginez, baina esan gura dau turismo-tasa batek, 2 eurotik 5 eurora bitarteko turismo-zergeak, ez dauela inongo eraginik bisitariakan.

Tira, amaitzearren. Hara, Euzko Alderdi Jeltzalearen eta ezetzaren Gobernuaren ezezkoa espero genduan. Halanda be, Alderdi Sozialistek, tira, zera dinosku, Valentzian eta Kanarietan baietz, baina hemen, ezetz. Tira, nik uste dot hori halan-holan ulertzen dala. Egia da alderdi bakotxak bere erritmoak daukazana, baina, era berean, egia da Bizkaia ezin dana egon beti zuon erritmo geldoei begira. Eraldaketa-garaian gagoz, eta preminazkoa da gizartea eta baita sektore ekonomikoak aldatzeko neurriak abiarazotea.

Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Benito Ziluaga. El representante del grupo Euskal Herria Bildu, señor Rahona Garay, tiene usted la palabra.

El Sr. **RAHONA GARAY** jaunak:

Tira, egia esan, Benito jaunak esan barri dauenaren kontra, gu ez gaitu bapere harritzen Alderdi Sozialistearen ezezkoak be. Izan be, nahiko argi geunkan ekimena ez zana aurrera aterako; izan be, hontsu-hontsuko aurrekari bat geunkan, Gipuzkoako Batzar Nagusien Osoko Bilkurea, hain zuzen be, eta bertan Euzko Alderdi Jeltzalearen, Alderdi Sozialistearen eta Alderdi Popularraren aurkako botoak izan genduzan. Foru Gobernuko alderdien ordezkariak be osoko zuzenketea aurkeztu eben, eta EAJko ordezkariak orain aitatu dauen lez, gehiago izan zan moduagaitik eta ez gaiaren maminagaitik, hau da, tasea bera ezarteagaitik. Izan be, hantxe landutako testuaren maminari lotzen natxako.

Aurrekariet jagokenez, Batzar Nagusien aurreko legealdia izan eben berbabide, Lurraldeko turismoari buruzko berbaldi batetik eratorritako txosten bat onartu eben, turismoaren fiskalitatea euren gomendioetan egoan, hain zuzen be, turismoaren fiskalitateari jagokon 2.1 atalean: “zerga progresibo bat ezartea udalei ahalbidetzeko...”, etab., etab. Jasota egoan, eta zuek gobernetan dozuen erakunde batek be gomendatzen dau.

Sano deigarri egin jatan beste kontu bat da sentzibilidade eta enpatia faltea leporatzea, bai talde proposamengileari eta, ulertzen dodanagaitik, bai zuzenketagileari be, batez be kaltetua izan dan ostalaritzeari teorian zerga bat ezartearren. Tira, ba, nahiko bitxia da gainerakooi berba egitea sentzibilidaderik eta enpatiarik eukiezaz, ostalaritza-sektoreko hiru lurraldeetako ordezkariak be kalera atera diranean, itxikeria-egoeran menperatu dozuezalako, pandemia izugarri honen pagano nagusi lez, eta horren aurka aldarrikatu diranean. Izan be, pandemia gehiegi irauten ari da, eta euret laguntzeko ezarri gura zenduezan neurriak ez dirala

halakoak izan barruntau dabe, jakina. Halanda ze, sentsibilidadearena eta enpatiarena barriro planteauko neukez, edozelan be.

Aitatu deuskuzuen beste gai bat izan da daborduko gauzatzen ari zarien ustezko neurrien ezarpena, eta, teorian, ba, horrek gaur proponiduten dogun ekimena ia zentzunbako egiten dauela dinozue. Hara, gaur-gaurkoz, esan behar deusut ez dakigula zehatz-mehatz zeintzuk diran neurriok, besteak beste, uda aurretik jakinarazo zeunskuelako txosten ospetsu hori, dokumentu hori, ez dakit zelan deitu, Bilbao Bizkaia Turismo Estrategia 2030, baina 2022ko urtarrilaren 19an gagoz eta hondinokarren be horri begira gagoz. Ez dakigu zehatz-mehatz noiz jasoko dogun.

Sano deigarria egin jatan beste kontu bat izan da aurkeztu dogun ekimena zakarra dala arpegiratzea. Tira, sektore turistikoari ez dago inongo erasorik, benetan, kontrakoa baino. Nire ustez, Martínez andrea, zure berbaldiaren arabera, edo ez dozu entzun, edo ez dozu ulertu gura izan. Baina, hain zuzen be, zeozer nabarmendu badogu sektore turistikoak sortzen dauzan abantailak izan dira, garapen ekonomikoa eta soziala sortzen dauen sektoreaz berba egin dogu, baina, jakina, desbantailak hortxe dagoz, barruntau leitekez. Eta, jakina, agirikoa da zoritxarrez gehiagora doazana, lehengo egoerara itzultzeko neurririk ez da-eta ezarri. Halanda ze, jardun egin behar da.

Eta proponiduten dogun proposamenari ezetz esateko Elkarrekin Bizkaia taldeak erakutsi dauen jarrereagaz lotuta, ez doguna ulertzen da ez dauela bat egiten turismo-tasearen helburu finalisteagaz. Hain zuzen be, zuk be aitatu dozun beste gai bategaz ez datorrelako bat: “esku hartu behar da”. Izan be, egin dogun eta partekatu dogun sektore turistikoaren diagnostikoaren arabera, ez jaku bururatzeko esku hartzeko modu hobearik baliabideak sortzea baino, gaur egin sektoreak bizi dauen egoera gatxa aldatzeko.

Sektore turistikoa urrezko arrautzen oiloa lakoa da, eta kontua ez da dirua ateraten jarraituko daben neurriak ezartea eta hortik ateratako etekinak beste baliabide batzuetarako erabiltea, ezpada guztiz kontrakoa, turismoaren sektorea bera elikatzea sortzen dauen aberastasunaz, saneetako eta denporan zehar bideragarritasun jasangarriaren egoeran jarteko.

Halanda be, amaitzeko, Elkarrekin Bizkaiaaren ekimenaren aldeko botoa adierazo gura dot, egia da-eta hasierako fasean gagozana; proposamena zuzena dala uste dogu, tasa hori ezartea beharrezkoa dala. Beste kontu bat izango da, ba, behin ezarrita norantza bideratuko dogun. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Rahona Garay. La representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señora Martínez Fernández, tiene usted la palabra.

La Sra. **MARTÍNEZ FERNÁNDEZ** andreak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea.

“Ez dago txostenik zerga hau ezarteak gogoia kentzen dauela esaten dauenik” dinoskuzue, eta egon badagoz, bai. Izan be, turismo-sektoreko profesionalak zerga hori ezartearen aurka dagoz, baina ezin deustazu esan horrek suspertu egingo dauenik, badakizu-eta hori egia ez dana.

Zera dinoskuzue..., badakigu zein zan egoerea. Hazten ari ginan 2019an sektore turistikoan, bai. 2020an, lehen esan deusuet, badakigu Bizkaian ia erdira jatsi zana, eta 2021ean hazi egin zan, arean hazi zan. Hondinokarren ez da pandemia aurreko mailara heltzen,

baina ez dozue kontuan hartzen sektoreak egin behar izan eban ahalegin handia eukan maileari eusten saiatzeko edo egoanera hurreratzeko, eta ezta horrelan be; zenbat eskaintza egin behar izan dabezan, sektoreak turismoa erakarteko zenbat dei egin behar izan dauzan, batez be 2021ean gaualdiak be ez ziralako igon.

Ulertzen dot Bizkaian turismoa sendotu egin behar dala, ulertzen dot sustapen-kanpainak egon behar dirala, ulertzen dot administrazio publiko guztien laguntzak egon behar dirala, eta zuek proponiduten deuskuzuena zera da: “Hara, kobrau daiguzan, akaso, persona bakotxeko 2 euro, Bizkaian, akaso, 8 milioi euro biltzeko”, eta zeuk esan dozu, ba, aurrekontuetan ez dakit zenbat zero ipini behar doguzan aurretik ehuneko horretara heltzeko.

Eta hori guztia ez dakigu zertarako. Izan be, atzean “jasangarria” apelatiboa ipini ezker, hor dana sartzan dala emoten dau. Ba, nire ustez, nahiko ardurabakoa da. Uste dot Gobernu baten erantzukizuna, administrazio baten erantzukizuna, nire ustez, kargu publiko baten erantzukizuna, batzarkide batena, kasu honetan, beste ekimen mueta batzuk hartzea dala.

Badakizue, gainera, pandemia dala eta, hainbat Autonomia Erkidegotan, euretako asko eta asko Alderdi Popularrak gobernauta, turismoa sustatzea zana helburua, eta sektoreari eta turisteari bonuak edo laguntzak emotea, eta zuok hemen kontrakoa egiten ari zarie.

Eta izugarri zakarra iruditzen jat, bai, turista bati esatea “hara, ba al dakizu zenbatean dagoan ur-saneamentua?”, horixe esatera dator ekimena. “Ba al dakizu zenbat balio dauen segurtasunak; ba al dakizu zenbatean dagozan azpiegiturak?”. Benetan, hori al da Bizkaia bisitetan jatorkun persona bati jakinarazo gura deusazuena? Ez, Bizkaia bisitatu gura dauenak, eta asko etorri daitezala, daukaguzan zerbitzu guztiez gozau behar dau. Eta hobetu geinkena, ba, askoz be hobeto, egunero dira-eta; sortzen daben aberastasuna izan behar dira, gure BPGaren ehuneko handiagoa sortu behar dabe. Eta horrek bai, bisitariak harrera hobia egiten jakela sentidu dagiela ekarriko dau, gure lurraldean hobeto egon daitezala, eta herritar guztion artean azpiegitura hobeak lortu ahal izatea be bai.

Baina barriro dinot, guztiz garaiz kanpokoa dala erexten deusat honi. Zifrak dozue berbabide, eta batez be ez dakizuela dinozue ezta zertarako izango litzateken be. Baina badinotsut gure Lurraldean sektore hori hobetzen laguntzeko be ez litzatekela izango. Eta dinodanaz fietan ez bazara, sektore turistikoko adituakaz baino ez dozu berba egin behar, eta txosten ugari emon ahal izango deusuez.

Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Martínez Fernández. El representante del grupo Socialistas Vascos, señor Trimiño Vegas, tiene usted la palabra.

El Sr. **TRIMIÑO VEGAS** jaunak: Muchas gracias.

Guk barriro dinogu; proposamen hau desegokia da. Izan be, une honetan erakundeek sektore turistikoa suspertzen lagunduko leuken testuinguru bat sortzen lagundu beharko leukie, eta zuon proposamena kontrako norabidean doa. Eta, gainera, gure jarrera indartu baino ez dozue egiten Podemoseko ordezkariak erakutsi dauen grafikoagaz, grafiko horretan bertan ikusten da-eta azken urteko eta igazko datuak 2019koak baino okerragoak dirana. Halanda ze, hain zuzen be, sektorean lehentasuna emon beharko litzakio erakunde publikoetatik susperraldia bultzatzeari, sektorearen hazkunde horri laguntzeari, eta ez trabak ipintzeari.

Izan be, uste dot erakutsi dozuezan datu horreek gure jarrera indartzen dabela. Gainera, azken ikutua emotearren, Eusko Jaurlaritzako Turismo sailburuaren adierazpen batzuk aitatu dozuz, eta abuztuko datu on batzuk aitatzten ebazala. Eta horrek, horretara jo izanak, hain zuzen be, arean harritu egin nau, denporan iraungo dauen turismo-eredu baten alde egiten dogulako, eta ez urtaroko turismo baten alde, eta argumentuak abuztuko datuetara mugatzeak ez dau ekarpen handirik egiten zuek proponiduten dozuena defendiduteko.

Edozelan be, guk ez deutsagu uko egiten jasangarritasunari lagunduko deutsan fiskalitate bati buruz eztabaidatzeari edo gogoetea egiteari, edo turismoak ingurunean daukan aztarneari aurre egiteari, baina momentua hartu behar da kontuan, eta sektoreko erakundeen eta udalerrien eskutik egin behar dogu lan, hau da, Eudelen eskutik, horreetako inork ez dauelako mahai gainean jarri edo zuek proponiduten dozuena eskatu, kontrakoa baino.

Halanda ze, tasa turistikoak sustatu egiten dauela edo gogoia kentzen dauela defendiduten daben azterlanez ari garala, ba, hara, erakundeak, eragileak eta sektoreko enpresak aurka badagoz, nire ustez, horrek zeozer esan gura deusku, argi eta garbi.

Barrero dinot, sektore horreen eskutik jardun behar dogu, turismoaren sektoreko erakunde horreen eskutik; izan be, inguruabarrek oraintxe bertan zera agintzen dabe, lehenetsuna emon behar jakela gure lurraldean turismoaren garapena eta hazkundera bultzatzen daben neurriei, eta entidadeek, turismoaren sektoreko eragileek azken urteotan inbersinoetan egin behar izan daben ahaleginagaitik, baita pandemiaren egoerara egokitzeko be, eta gauza asko eta asko. Eta, beraz, sentiberak izan behar gara horregaz guztiagaz.

Gainera, berretsi egin gura dogu, gure ustez, ez dala argi geratzen zerga hori, tasa hori foru-esparruan ezartearena, eta hori proponiduten dozuen moduak, hatan be, Lurralde Historikoen arteko harmonizazioa apurtzea dakarrela. Adierazo gura dot, gainera, Elkarrekin Podemosek behin baino gehiagotan aitatu dauela zerga hori badagoala daborduko Balear Ugarteetan, Katalunian, Valentzian eta Kanarrietan, eta 3 gauza esan gura deutsudaz horren inguruan. Lehenengoa da ezarri dan tokian, ezarteko asmoa egoan tokian, inplikautako sektoreakaz batera lan egin dala, eta hori oinarritzkoa da inguruabar horreetan eta edozeinetan, eta hori ez da egiten dakartzuen proposamenean.

Bigarrenik, aitatu dozuezan lurralde horreetako sektore turistikoaren ezaugarriak sano desbardinak dirala Euskadiko sektore turistikoaren ezaugarrien aldean, turismo muetagaitik, Euskadiko turismoa hontsu hasi dalako beste lurralde batzuen aldean, eta turismoak beste lurralde horreetan lurraldeko BPGan daukan eraginagaitik.

Eta, hirugarrenik, egoerak be desbardinak dira, toki horreetan zergak izaera edo ezarpen autonomikoa daukalako, eta hemen Lurralde Historikoan proponiduten dozue.

Eta, tira, ba, amaitzearren, ez gatoz bat eta ez dogu ulertzen zelan proponiduten dozuen zerga turisteari, bisitariari informazioa emoteko modu lez. Gure ustez, fiskalitateak, zergek, aberastasuna birbanatzeko balio dabe, zerbitzu publikoak indartzeko. Beraz, informazioa emoteko aurkeztea, zuok proponiduten dozuen lez, esan lei gure Lurraldera etortegaitik turisteari ia arpegiratzea dala, errieta egitea, edo zigortzea. Ba guri ez jaku iruditzen tasa edo zerga horren ontasunez inor konbenziduteko erarik onena danik.

Ez jaku lar argi geratzen, gainera, zein azterlanek edo azterketak dinoan tasa hori edo zerga hori ezarteak bisitariari ez leuskiola etorteko gogoia kenduko, batez be, esan deutsuegun lez, sektorea bera ez dagoalako ados horregaz.

Halanda ze, tira, uste dot eztabaidan sortu diran gaiei erantzuna emoten saiatu nazala, eta uste dot horrek guztiak indartu egiten dauela gure jarrera, Elkarrekin Podemosek gaur hona ekarri dauen proposamenaren aurkako botoa, hatan be.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Trimiño Vegas. Y para concluir el debate, el representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor De Luis Zelaia, tiene usted la palabra.

El Sr. **DE LUIS ZELAIA** jaunak: Buenos días de nuevo.

Ahal dan eta laburren egiten saiatuko naz. Benetan, gure ustez, existiduten ez dan eztabaida bat zabaldu gura izan da. Datuak berrikusi dira, beste ganbera batzuetan egin dan lez, eta sakondu ezker, tasa hori negatiboa izan dala adierazoten deuskuen txostenak be aurkitu geinkez, 2019ko International Journal of Tourism Research dalakoa, esaterako, 505-514 orrialdeetan. Bertan, turista nazionalek ingurune horreetara joateari ixten deusiela adierazoten da, beste helmuga nazional batzuen alde. Beste alde batetik, kanpinen sektorean izandako hazkundeari buruzko datuak aterateak sektore horren errealidadea ez dala ezagutzen erakusten dau, batez be uste dodalako igoera horrek ez deusala inongo estresik eragiten Bizkaiko udalerrari.

Esandako horregaitik guztiagaitik, ezetz bozkatu behar dogu, eta horixe da gure jarrera.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor De Luis Zelaia.

Y una vez finalizado el debate, someteremos a votación la Propuesta No de Norma. No se ha aceptado la enmienda. Por lo tanto, lo que someteremos a votación será la Propuesta No de Norma, la original. ¿Votos a favor de la iniciativa? ¿Votos en contra? No hay abstenciones. Por consiguiente, el resultado es el siguiente:

Se han emitido 51 votos en total. Han sido 16 votos a favor, 35 han sido en contra, no ha habido ninguna abstención. Por tanto, no se ha aprobado la Propuesta No de Norma.

A continuación, el séptimo punto del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

6.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Proposición no de norma ([R.E.11/E/2021/0003649](#))

**Autor:** Duque Santacoloma, Izaskun (EHB)

**Asunto:** Los cuidados en el hogar.

**Documento Principal:** ([R.E.11/E/2021/0003649](#)),([R.E.11/E/2021/0003761](#))

**Boletines:** [Admisión a trámite y apertura del](#)

6.- Honako idatzi hau aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Arauz besteko proposamena ([11/E/2021/0003649SE](#))

**Egilea:** Duque Santacoloma, Izaskun (EHB)

**Gaia:** Etxeko zaintzak

**Dokumentu Nagusia:** ([11/E/2021/0003649SE](#)),([11/E/2021/0003761SE](#))

**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea eta](#)

[plazo de enmiendas](#) (175A), [Enmiendas:](#)  
[Admisión a trámite](#) (175B)  
**Expediente:** [\(11/B/26/0002952\)](#)

[zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#)  
(175A), [Zuzenketa-eskeak:](#) [Izapidetzeko](#)  
[onartzea](#) (175B)  
**Espediente:** [\(11/B/26/0002952\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es el turno de la juntera que ha presentado la iniciativa. Por tanto, señora Duque Santacoloma, tiene usted la palabra.

La Sra. **DUQUE SANTACOLOMA** andreak: Muchas gracias, y buenos días a todos/as.

Son muchas las iniciativas que mi grupo ha presentado en torno a las políticas de cuidados, y no solo en una legislatura que ha estado totalmente marcada por la pandemia de la Covid-19, sino también con anterioridad a esta legislatura de la pandemia que ha puesto en el centro del debate las residencias para mayores. Como recordarán, el modelo de residencia de Bizkaia ya fue cuestionado en la pasada legislatura por la huelga del colectivo trabajador.

Se cuestionó un modelo de gestión, mayoritariamente privado, que precariza las condiciones del personal y la calidad del servicio que se ofrece a las personas mayores. EH Bildu lleva años cuestionando el modelo actual y lleva años diciendo que necesitamos cambios estructurales para afrontar los retos, no ya del futuro, sino del presente. Por eso seguiremos haciendo propuestas para mejorar las políticas públicas de cuidados.

Por eso, priorizamos llegar a acuerdos con los equipos de gobierno, aunque sean mínimos para nosotros/as, para conseguir mejoras concretas y verificables. Por dicha razón, hemos retirado nuestra propuesta inicial, y hoy defenderemos la transaccional alcanzada con el PNV y el Partido Socialista.

Y en nuestra propuesta hemos querido centrarnos o poner el foco de atención en el ámbito del género, ya que el ámbito de los cuidados está totalmente feminizado, ya sean cuidados formales o informales.

Como ocurre en los países mediterráneos, nuestro modelo sigue siendo “familiarista”. Un “ejército de mujeres” –ya sea dentro de las familias o a través del empleo doméstico– realiza los trabajos de cuidados de manera invisible y eficaz, sí. Pero, ¿a cambio de qué?

Los cuidados tienen muchos efectos para quienes se dedican a ello. Somos conscientes de cuáles son los sacrificios del autocuidado para el daño y la dependencia económica futura, por haber realizado un trabajo que carece de contrapartida. Las posibilidades de acceso a los cuidados por parte de las personas con menos recursos son menores, por lo que aumenta la carga que deben asumir y se les niega de esta forma, ya que el cuidado exige mucho tiempo, la posibilidad de obtener mayores recursos para romper con esa espiral.

Además, la mercantilización está sustentada sobre la precariedad laboral extrema de miles de mujeres desde un punto de vista económico y social. El deseo de ser atendido en casa el mayor tiempo posible está muy extendido en nuestra sociedad y las instituciones deben analizar y decidir cómo responder a ese deseo.

Pero en la toma de decisiones no se puede dejar de tener en cuenta que ese deseo no es neutro y que el hecho de ser cuidado/a en el hogar refuerza que las mujeres estén vinculadas al cuidado. Por eso realizábamos tres propuestas concretas:

1.- Que el Departamento de Acción Social, junto con el Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, analice la situación de los cuidados formales e informales en el hogar. Que se realice un informe o un estudio y que se establezcan medidas en base al mismo.

Proposamen horrek Politika Orokorreko eztabaidan lortutako akordioa jaso besterik ez eban egiten. Gure hasierako proposamena, gure ustez, politikearen ikuspegitik asmo handiagokoa zan, baina orduan, gaur egingo dogun lez, puntu batzuk kentzea erabagi genduan akordio bat, adostasun bat lortzeko. Politika Orokorreko eztabaidara ekarri genduan hasierako proposamenean guk ikuspegi feministatik egin behar zala defendiduten genduan, eta ez genero ikuspegitik, uste dogulako hortik egiten dirala politika eraldatzaileak. Baina, esan dodan lez, akordio hori lortzeko, Gobernuaren taldeek proponidu euskuen lez jaso genduan. Eta gaurko Osoko Bilkurara ekarri dogun hasierako proposamenean, txosten hori egin ondoren neurri zehatzak jaso eitezala proponiduten genduan. Lortu dogun akordioa da txosten hori noiz aurkeztuko dan zehaztea, denporan neurtzea, eta txosten hori jagokozan batzordeetan aurkeztu daitela.

Genkarren proposamenaren bigarren puntua EtxeTIC proiektuaren ingurukoa zan.

Solicitábamos que, con carácter previo a la difusión del proyecto EtxeTIC, se realice una evaluación del centro Etxaniz desde esa perspectiva, desde la perspectiva de género. En efecto, el centro Etxaniz vendrá a ser el primer paso de ese proyecto EtxeTIC, y creemos que antes de realizar un despliegue de este proyecto en todo el territorio, es preciso realizar una evaluación del mismo.

Eta sarritan adierazo doguz proiektu horri buruz daukaguzan zalantzak eta bildurrak, eta ikuspegi ekonomizistek kezkatu egiten gaitu; azken baten, Silver Economy lez ikusten da, hau da, “zidarrezko ekonomia”. Eta uste dogu enpresa-interesak personen ondoizatearen eta eskubideen artean ipinten dirala; izan be, normalean, bi interesak kontrajarten diranean, personek galtzen dabe.

Baina akordio batera heltzearen zera lortu dogu... Proiektu honen ebaluazino bat egin daitela lortu dogu, denporan zehar be neurtua, eta EtxeTIC proiektua Bizkaian zabaldu ahala be ebaluetea. Politika horreen norabide zuzenean goazan jakin daigun, neurri mueta horreek hondinokarren emakumeakaz lotuta dagozan genero-roletan sakontzen ari diran edo, ostera, norabide onean goazan jakiteko.

Eta, azkenik, tira, beste puntu bat proponidu genduan, baina denporea bukatu egiten ari jat. Halanda ze, bigarren txandan ekingo deusat.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Duque Santacoloma. Tal y como ella ha manifestado, los grupos han alcanzado una transaccional. Todos/as los/as portavoces conocen la transaccional, ¿no es así? Señor Andrade, zuk be ezagutzen dozu erdibideko zuzenketea? Banatu jatzue bozeroaleoi? Baieztu eidazue, mesedez, danok... Bai, ondo. Muchas gracias.

Los grupos Socialistas Vascos y Nacionalistas Vascos presentaron una enmienda. Por ello, a continuación, la representante del grupo Socialistas Vascos, señora Campo Prieto, tiene usted la palabra.

La Sra. **CAMPO PRIETO** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta, buenos días a todos/as.

Ganbera honetan hainbat aldiz hausnartu eta eztabaidatu dogu etxeko zaintzen inguruan, bizi-itxaropenaren luzapena dan lorpen handienetako baten inguruan, eta lorpen horrek zelan dakarren beragaz zaintzen beharra handitzearen inguruan be. Premina hori beti egon da, eta emakumeei egokitu jake beti. Zalantza barik, erantzukizun hori emakumeak hartu behar izaten eban, hori ezin zan eztabaidatu.

Zorionez, errealidade soziala aldatzen ari da, aurrera egin dogu, nahi-ta batzuk aurka egon, hori be esan beharra dago. Baina halanda be, hondino rol hori emakumeek hartzen dabe gehienbat, horrek dakarzan ondorioakaz, eta hemen be hainbat aldiz eztabaidatu dogu ondorio horreetaz.

Gure ustez, egokia da gaur, beste behin, horri heltzea, zaintzak ezin diralako denpora gehiagoz ezkutuan geratu, jagotea betebeharrak etikoa dalako gizarte demokratiko txukun baten, eta ez emakumeen betebeharrak eskusiboa, zaindua izateko eskubidea eta zaintzak baldintza onetan emoteko betebeharrak dagoalako. Eta feminismotik aurrez aurre jarten gara, baina beharrezkoa da, era berean, erakundeek neurriak hartzea emakumea babesteko alkarrekin sortzen dauzan desbardintasun bidebako eta saihegarriei aurre egiteko. Gai publikoa da, gai politikoa da, eta horretan ari gara talde sozialistan, demokrazia jagotea eregiten, erantzukizunak partekatzen. Zaintzen antolaketa sozial erantzukidearen alde egiten dogu, eta, jakina, ekintza publikoaren laguntzeagaz. Eta bai, aurrera egin dogu, baina aurrerapen hori diskursora eta eretxira mugatzen da batzuetan, eta ez da errealidadeetan islatzen.

Emakumeok lan erreproduktiborik gehiena eta zaintzen erantzukizuna gure gain hartzen jarraitzen dogu, eta erantzukizun hori gizarteak esleitzen deusku, honako zigorrakaz: langabezia, prekariedade ekonomikoa, baztertzea...; desbardintasuna eta askatasuna galtzea, azken baten.

Gure betebeharrak da zaintzak emoten diran naturalizazioari aurre egitea, ordaindutakoak zein ordaindu bakoak izan, eta genero-ikuspegia daben zeharkako politikak sustatzea, desbardintasunak zuzentzeko.

Eta horrelantxe egiten ari gara, Espainiako Gobernuan, Eusko Jaurlaritzan eta Bizkaiko Foru Aldundian, eta zaintzak Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren garapenaren lehentasunezko bektore lez sartu dira, eta Euskadi Next programan, eta Bizkaian Iraupen luzeko zaintzetan trantsizinoa sustatzeko Planean, eta 2021. eta 2023. urteen artean 185 milioi euroko eragina izango dau. Etxean irautearen alde egiten dogu, sektorea profesionalagoa izatearen alde, eta baita arretea personalizetearen, zerbitzuak hobetzearen eta enpleoa sortzearen alde be.

Horregaitik guztiagaitik, bat gatoz EH Bilduk egiten eban proposamenagaz, Euzko Abertzaleakaz batera aurkeztu doguzan zuzentzetan islatu doguzan ñabardura batzukaz. Bizkaian mendekotasun-egoeran dagozan personeren zaintza formalei eta informalei buruzko azterlan kuantitatibo bat egitea babesten dogu, genero-ikuspegitik. Baina datu barik ikusiezin bihurtzen da, eta ikusiezina izan ezker ez da ezagutzen. Datuak ezinbestekoak dira eraginkortasunez lan egiteko eta lehentasunak ezarteko.



Halanda ze, Gizarte Ekintza Sailari eskatzea proponidu dogu aztertu dagiala azterlanaren emaitzea eta, aztertu ondoren, Batzar Nagusi honeetan aurkeztu dagiala ekitaldi honetako hirugarren hiru hilekoan. Gure ustez, errazoizko denpora-epea da, eta datuak eta ebidentziak kontuan hartuta, zainketetan erantzunkidetasuna hobetzeko neurrietan aurrera egin ahal izango dogu. Eta ahalik eta zehatzen egiaztutako datuen garrantziagaitik, proposamenaren 2. puntua be zuzendu dogu, eta puntu honetan proponidu dogu Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzea, Etxaniz Zentroaren zabalkundeak aurrera egin ahala, 2022an zentro horren ezarpenaren ebaluazinoa egin dagiala, genero-ikuspegia kontuan hartuta, eta Batzar Nagusietan 2023ko lehen hiru hilekoan aurkeztu dagiala. Eta, gainera, EtxeTIC ereduko gainerako proiektuak zabaldu ahala be, proiektu horreen ezarpenaren ebaluazinoa egin dagiala eskatzen deusagu.

EtxeTIC eredu mendekotasuna daben personek etxean jarraitu dagien arrete eta laguntzea emoteko proiektu lez azaltzen da, eta horretarako teknologia barrietan oinarrituta arriskuak monitorizau, prebenidu eta detektatu egingo lirakeke. EtxeTIC eredu horren barruan dago Etxaniz, eta mendekotasun-egoeran dagozan personen eta jagoleen bizitza hobetzeko balioko dau.

Datuen garrantzia aitatu dogu; horregaitik, uste dogu beharrezkoa dala proiektua ezarten danetik ebaluetea, ezarpenean zehar, gelditu barik, eta adierazleen eta helburuen betete-mailearen jarraipena egitea. Datu fidagarrietarako garapen-denpora bat behar da; horregaitik, ebaluetea, ikastea proponidu dogu, eta datuakaz, ebidentziakaz, aurrera egitea.

Proposamenaren hirugarren puntuari jagokonez, ekintza zehatz bat dan lez, egokiagotzat jo dogu txostenak emoten dauzan datuei itxarotea neurriak hartzeko eta aldaketei ekiteko, eta, orduan bai, dekretuetara eta planetara eroateko beharrezko aldaketak.

Por el momento, nada más.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted. La representante del grupo Nacionalistas Vascos, señora Coria, tiene usted la palabra.

La Sra. **CORIA YANGUAS** andreak: Sí, buenos días a todos/as, y muchas gracias, señora Presidenta.

Es incuestionable que todos los grupos políticos representados aquí estamos de acuerdo cuando manifestamos que los cuidados están sobre las mesas de trabajo de todas las administraciones.

Euskal Herria Bilduren Proposamenaren errazoiketean zaintzen eredu mediterraneotik abiarazoten zan, jagoten dauen personearentzat dakarren sakrifizinotik, desbardintasunean arrete jarrita. Izan be, gaur egun, hondinokarren be, gizarte batentzat hain oinarritzkoa dan jagotearen atazea baldintza natural lez genero femeninoari lotzen jako. Eta, gainera, aitatzen da gizartean zabal dabilela etxean ahalik eta denpora gehien artatua izateko nahia, eta horrek emakumeakan eta desbardintasunean be eragina dauka.

Euskal Sozialistak taldeak eta Euzko Abertzaleak taldeak EH Bilduren proposamenari egindako zuzenketa aurkeztu ondoren, akordio batera heldu gara, erdibideko zuzenketa batera, eta, alde batetik, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari eskatzen deusagu, Bardintasun Zuzendaritzeagaz batera, etxeko eremuko zaintza formalen eta informalen egoerari buruzko genero-azterketa bat egin dagiala, eta, gero, azterketa hori

argitaratu dagiala. Horrez gainera, jasotako ekarpenakaz eta gogoetakaz, hartuko diran neurriak gainbegiratu daizala eskatzen deusagu, sexuen arteko orekea sortu daiten etxeko eremueta bultzatu leitekezan ekintzetan.

Horrezaz gainera, 2022an, Etxaniz zentroaren ezarpenaren ebaluazioa egingo da, 2023an aurkeztu daiten Ganbera honetan.

Gure taldeetik, era berean, Aldundiaren lanari balioa emon gura deusagu. Izan be, une haretako argazki finkotik aldentuta, daborduko beharrean dabil iraupen luzeko zainketen trantsizinoa bultzatzeko, ondo dakigunez, lau jarduera-ardatzetan: EtxeTIC ereduko eguneko zentroak, genero-ikuspegitik zainketen erantzunkidetasuna lortzen lagunduko daben jarduera espezifikoa izan beharko dauzana: bizikidetzat-unidadeak egoitza-zentroetan; erreferentziazko eskualdeetako zentroak; eta, hoba ez, prestakuntza profesionalak hobetzea.

Eredu personalizaua, aniztasunari, beharizanen bilakaerari, personen itxaropenei eta lehentasunei arreteja jarrita, euren bizi-proiektua garatzeko, etxeetan zein egoitzetan.

Sistema ona daukagu, Estaduko eta Europako erreferentzia gara personen arretan, baina hobeto egon behar gara, eta Bizkaiko Foru Aldundia egunez egun beharrean dabil horretan. Eta horrek esan gura dau daborduko funtzionetan dauena hobetzea, iraupen luzeko zainketen arreteja hobetzea, laguntzea XXI. mendera egokitzen jarraitzea, modernizeteja, teknologia sartzea, azken aurrerapenak, daborduko egiten ari garanari gehitzeko.

Eta, jakina, uste dogu beharrezkoa dala zaintzen egoerea aztertzea, zuzenketa honetan adostu dogun lez, genero-desbardintasunagaitik bazterkeria-baldintzak sortzen dabezan prozesuei aurre egiteko neurriak ezarri daiguzan. Emakumeak eta bardintasunak hobekuntza horren erdigunean egon behar dira.

EtxeTIC ereduko eguneko zentroak iraupen luzeko zainketen trantsiziorako lan-ildo bat dira, batez be etxean, eta horrek emakumeen eta gizonen zaintza partekatuetan eragiten dau; horregaitik, ezarpenaren ebaluazioa egiten jarraitu beharra dago eta ondorioak hobetu, etenbako hobekuntza-prozesu baten.

Hori dala eta, EH Bildugaz akordio batera heldu gara, eta akordio horrek errealidadea ezagutzeko eta, aztertu ondoren, iraupen luzeko zainketen trantsizino-eredu horretan ekintzak diseinetako balio dau, jagoteko erantzukizunean genero-desbardintasuna ezabatzerat bideratutako ekintzak, hatan be.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Coria Yanguas. Y el representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señor Andrade Aurrecoechea, tiene usted la palabra.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea.

Egia esan, txarto ulertu dot. Guri ez deusku inork gai honi buruzko erdibidekoaren akordiora heltzea eskaini...

Ai, bai; banatu ei deuskuen, hori bai, banatu deuskue, ados. Bardin da, edozelan be, alde bozkatuko dogu. Beraz, ez gaitu horrek horrenbeste kezkatzen. Egia esan,

etxean edadekoak jagoten dabean personen edo familia-eremuko jagoleen egoerari buruzko azterlan bat egitearen kontra ezin da inork egon. Ezin deutsu inork uko egin diskriminazio hori ezabatzeko ahaleginak egiten jarraitzeari, gure edadekoak edo laguntzea behar dabean personak gehienbat emakumeek jagoten dabenez-eta. Halanda be, Gizarte Ekintzako diputaduak esan eban azterlan batzuen arabera, Bizkaian, antza, gero eta gizon gehiago sartzen dirala sektore horretan, eta hori beti da eskertzekoa, eta neurriak aztertuko dirala dinoe.

Egia esateko, Euzko Alderdi Jeltzaleak eta Alderdi Sozialistek aurkeztan dabean proposamena egokia da, guztiz egokia, eta ezin dau inork ukatu.

Nire ustez, arean labur geratzen da proposamena: diskriminazioaren errealidadeari buruzko azterlanak, eta zaintzak emakumeek gizonen baino askoz be gehiago egiten dabezala dinoen azterlanak ehunka dagoz, Espainian, nazinoartean, eremu guztietan. Errealidade bat da eta sano gaxa da. Eta azterlan batzuek aurrerapena be aitatzen dabe, neurriei jagokenez zelan egin aurrera, baina batek be ez dau ezer ezarten, eta nik uste dot ez dagoala konponbiderik. Emoten dau kultura kontua dala, eta azterlan ugari dagoz.

Nik uste dot mozinoan azaltzen dana, Bizkaiari buruzko azterlan espezifikoko hori egitea sano ondo etorriko jakula benetako egoerea zein dan jakiteko eta neurrietan aurrera egiteko. Ez dakit zeintzuk izan leitekezan; izan be, esan deutsuet azterlanak... Azterlanaren emaitzearen barri laster eukiko dogu, badakigu-eta, nazinoartean ezaguna da, eta konponbide egokiak bilatu beharko lirakeke. Ez dot uste aurrera egin leitekenik, eta hemen konponbide batzuk falta dira.

Mozinoan familia-eremuan jagoleen lana duintzea aitatzen zan, eta beti aitatzen da, eta nik, esaterako, erabateko diskriminazioa ikusten dot, eta gauzatxo batzuk adierazoko dodaz. Berbarako, gure sisteman, hemen daukagun sisteman, foru-sisteman, Aldundiaren laguntzetan, baliabide gitxien daukan jentek zainketetara heltzeko gaiztasun gehiago daukala aiatatu da. Nik uste dot alderantziz dala: Aldundiak baliabideetara heltzeko sistemak ezarten dauz baliabide gitxien daukientzat, bai zainketak behar dabean personei arreta eskaintzeko laguntzetara heltzeko, bai etxeokak berak horri ekin degion, etxeko hainbatek jagon gura dau-eta bere familia. Eta Aldundiak, baliabide gitxi daukazuzanean, sistema batzuk daukaz laguntzea emoteko. Ez dakit zergaitik dinozuen zenbat eta baliabide gitxiago izan, orduan eta ahalmen gitxiago. Nire ustez, zenbat eta baliabide gitxiago, orduan eta laguntza gehiago Aldunditik.

Baina ez dot ulertzen, esaterako, Aldundiak zergaitik emoten dauzan diru-baliabide gehiago kanpoko baten bat kontratetan dogunean, hau da, kasu horretan laguntzarik handiena 833 eurokoa da, familiako persona batek bere senidea jagoteko, etxean geratzeko eta bere familia jagoteko erantzukizuna hartzen dauenean baino, kasu horretan 500 euro emoten deutsaguz-eta.

Nik uste dot familiaren arretea duintzeaz berba egiten dogunean, jagoleentzat errazoi bat, gauza on bat izan leitekela bidezko ordainsaria emotea, eta laguntza justuak, gitxienez pareko laguntzak. Diferentzia hori, diputaduari galdetzeko aukerea izango dot, batzorderen baten azaldu deidala zergaitik ezarri dauen modu horretan Aldundiak. Ez dot ulertzen zergaitik, nire ustez, familia jagoten dauen familiako jagolea gitxiesten ari garalako. Egia da, era berean, familia-jagoleak eskubidea daukana gizarte-prestazino bat jasoteko, gaur egun Gizarte Segurantzaren kuotak ordainduta dagoz-eta. Gizarte Gaietako Ministerioak ordaintzen dauz, eta, beraz, zeure borondatez jardun zeintekoz zure edadekoak jagoten, prestazino bategaz, erretirorako eta ezintasun iraunkorreko gizarte-estaldura bategaz. Eta, baliabide propiorik ez bagendu, Aldundiaren ordainsaria izan beharko geunke; nik egokia dala uste dot, eta bardin kanpoko baten bat kontratetan badot be.

Sano eztabaida interesgarria da, itxaron degiogun Aldundiak Bizkaiko errealidadea zelakoa dan azalduko dauen txostenari, Espainiako eta munduko lurraldeen sano antzekoa izango da-eta. Eta espero daigun eginean-eginean egoera hobetzen hasi gaitezala, joera hori aldatzen saiatu gaitezala, lehen esan dodan moduan, itxura baten, aldatzen ari da-eta. Eta Aldundiak ekimenak egin daizala, nire ustez, barritzaileak eta aitzindariak izan beharko diranak, eta, tira, nahiko ausartak.

Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Andrade Aurrecoechea. La representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señora De Madariaga Martín, tiene usted la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Bueno, buenos días a todos/as.

EH Bilduk zaintzen inguruko proposamen bat ekarren eztabaidarako, gure ustez, ikuspegi feminista argiagaz, beste modu batera izan ezin eitekean lez. Historiaurretik gaur arte zaintzen inguruan berba egitea femeninoan berba egitea da. Historiaren hasieratik lana sexuaren arabera banatzea, jagoleen rola, bizitzeari eusteko zereginak, taldearen ondoizateari eustea emakumeek bete dabean zereginak dira, eta, beraz, ezinbestekoa da erakunde publikoek abiarazoten dabean jarduera guzti-guztiek, zaintzak eraldatu gura badoguz, genero-ikuspegia kontuan hartzea. Baina egia da hori ez dana gertatzen.

Zaintzetan Ganbera honetako talde guztiok bat gatozala emoten dau, zaintzak eraldatzeko beharrezanean. Zaintzen erronka be deitzen deusaguz, zaintzak eraldatzeko premineagaitik, hatan be, eta, gainera, eraldaketa horrek bere adierazpen gorena hartzen dau mendekotasuna dabenak etxean jagotea daukagunean berbabide. Tira, ba, horretaz egin dau EH Bilduk bere proposamena. Lehenengo eta behin, proponidu dau Gizarte Ekintza eta Enpleoko sailek etxeko zaintza formal eta informalen egoerari buruzko azterlanaren emaitzea aztertzea, genero-desbardintasunagaitiko bazterkeria-baldintzak ezarri eta sortzen dabean prozesuei aurre egiteko neurriak ezarri daitezkan. Ezebeza emoten dau, baina sano garrantzitsua da azken esaldi hori. Eta, egia esan, eta ez da hasierako proposamenari kritikea, jarduera politiko eta instituzionalei buruzko gogoetea baino, baina sortzen jatan lehenengo gauzea zera da: zenbat azterlan behar dira erakunde publikoek gitxienez azken bi hamarkadetan garatzen ari diran azterlan ugariaren diagnostikoek erakutsi daben errealidade horretan jarduteko? Zenbat?

Andrade jaunak esan dauen lez, asko, jakina baietz, baina gero egin dozuzan ekarpenetako batzuk entzun ostean be, uste dot ez dozuzala irakurri, Andrade jauna. Zenbat buelta gehiago emongo deusaguz, azkenean, beste diagnostiko bat egiten bukatzeko. Izan be, ekonomia feministeak, erakunde feminista desbardinek, erakunde publikoek eurek, inplikauta dagozan sektore profesionalak ordeztan dabean gizarte-eragileek, azterlan sozialak egiten jarduten daben entidadeek, eta beste hainbatek daborduko egin dabean milaka diagnostiko berretsi baino ez dauz egingo diagnostiko horrek. Izan be, proposamen honen zergaitia argudiatzen dozuenean, diagnostiko-elementu horreei guztiei buruz berba egiten dozue. Eta non dagoz neurriak? Noizko? Ez al doguz ezagutzen baldintza materialak, zaintza-eremuko eragileen existentzia? Ez al doguz ezagutzen zainketen erantzukizunaren banaketan ezarten diran botere-hartuemonak? Ez al dakigu hori guztia?

Tira, ba, hori esanda, gure taldetik saiatuko gara ulertzen azterlan barri horrek diagnostiko-datu barriak ekarriko dauzala, edo, gitxienez, daborduko ezagutzen doguzan datuak eguneratuta emongo dauzala. Baina bitxia da ikustea EH Bilduk hasieran proponiduten eban azterketaren helburua, hau da, genero-desbardintasunagaitiko bazterkeria-baldintzak

ezarten edo sortzen dabezan prozesuei aurre egiteko neurriak ezartea zala, eta ez da gauza bera zainketak lortzeko neurrietan aurrera egiteaz eta etxeko zaintzak gizonen eta emakumeen artean partekatzeaz berba egitea. Ez da gauza bera. Zer jazoten da emakumeak buru dabezan beste familia-ereduakaz? Non dagoz hor? Nogaz partekatzen doguz? Zer jazoten da baliabideak eta prestazinoak eskuratzeko aukerarik ez daben baliabide gitxiko familiakaz? Zer jazoten da diagnostiko horretan? Hori guztia, nik dakidala, danok jakin beharko geunke daborduko.

Bigarrenik, EtxeTIC proiektua zabaldu orduko, Etxaniz zentroaren ebaluazinoa egin daitela jasoten dau proposamenak, genero-ikuspegia kontuan hartuta. Eta gai horregaz ezin gehiago egon behar dau ados gure taldeak, zentzunezkoa dalako. Zentzunezkoa be bada, Etxaniz proiektu pilotua ebaluau izana, eredu bat kopietan hainbat milioi inbertidu aurretik, ez dakigunean funtzionetan dauen edo ez, ederto, talde honek Gizarte Ekintza diputaduari askotan eskatu deutsan lez. Hemen danok ulertzen badogu “pilotu” berbea “proiektu” berbeagaz batera doanean zeozer probau daiten abiarazoteko modu bat dala, zelan bururatzen jaku zabaltzea ebaluau barik? Erabat ardurabakoa da Foru Aldundiaren aldetik, eta, gainera, orain proposamen honetan berretsi egingo dogu. Ondo, ezin hobeto. Eta, gainera, hori horrelan da, hori azaltzen dan erdibidekotik abiauta, ba, EtxeTIC proiektua ezarri ahala joango gara ebaluazinoa egiten. Ba, ezebez, tira, behin galduta egon ezkerro, galdu daigun guztia.

Hara, ikusiko dozue zein garrantzitsua dan azterketa hori alde zurretik egitea. Izan be, genero-ikuspegiagaz azterketa on bat egin ezkerro, eta EtxeTIC eredia inolako kontrol barik zabaldu ezkerro, lehenengo eta behin, genero-desbardintasunak ezarteko arriskua daukagu, bai eta klase- eta jatorri-desbardintasunak be. Baina hori bagenkian, azterlan askoren diagnostikoek esaten deuskue-eta. Zuzenketearen errazoiketetan esatea EtxeTIC proiektuaren eraginak gizonen eta emakumeen artean zaintzak partekatzeo norabide egokian jarten dauela, asko esatera ausartzea da, ebaluazino hori aurkeztu barik, eta, beraz, dokumentu-oinarri bako gauzak esatera behartuta ez egoteko, onena, gure ustez, ebaluazino hori gehiago ez atzeratzea litzateke, EtxeTIC proiektua zabaldu arte itxarotea eta Etxaniz eguneko zentroaren ebaluazinoa egitea.

Eta, hirugarrenik, hasierako proposamenak laguntza personalerako prestazino ekonomikoa arautzen dauen foru-dekretua aldatzea proponiduten dau, eta hori kanpoan geratu da. Sano proposamen ona zan, gainera, gure taldeak Zaintzailearen Estatutua abian jarri zanetik defendidu dauena, eta gaur babestu gura genduana, baina ezin izango dogu, bitxia bada be, erdibideko zuzenketatik desagertu egin dalako, Gobernuari eusten deutsien taldeek adierazo dabelako izan leitekela neurri hori ez izatea azterlanaren azterketearen ondorioa. Baina aurretik egin diran beste azterlan batzuen azterketearen ondorioa da-eta! Hau txantxa bat da, edo zer? Hara, hasieran esan deusuedanetik abiauta, azterketa barri horrek ekarpen txikia egingo dau, gitxienez aprobetxau daigun beste batzuek emoten dabena, aurrera egitea ahalbidetuko deuskuen erabagiak hartu ahal izateko eta inongo zentzunik ez daben egoeretan ez gaitezkan gelditu.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora De Madariaga Martín. Pasaremos al turno de réplicas. Para ello, la representante del grupo EH Bildu, señora Duque Santacoloma, tiene usted la palabra.

La Sra. **DUQUE SANTACOLOMA** andreak: Muchas gracias.

Ni be bat nator egin dozun planteamentuagaz, Eneritz; horregaitik, hasiera baten, txosten horretan oinarrituta, gure proposamenaren lehenengo puntuak neurri zehatzak proponidutea azaltzen eban, nire lehenengo agerraldian esan dodan lez. Lortu doguna da, eta, bide batez, gitxitan lortzen dogu, gobernu-taldea konprometidu daitela txosten hori aurkezteko datea zehazten, egutegian jarten. Jakina, ekimenak azpimarratzen eta aurkezten jarraituko dogu,

txosten hori aurkeztu ondoren hurrengo urratsera joan gaitez, hau da, neurri zehatzak ezartera, behar diran neurri zehatzak.

Bigarren puntuari jagokonez, EtxeTIC proiektua, hain zuzen be, proiektu pilotua da, eta guk be uste dogu logika politikoak dinoala proiektu hori lurralde osoan zabaldu orduko horren ebaluazinoa egin beharko litzatekela. Gaur esan dogu, atzo esan genduan, eta bihar esango dogu. Ez dogu lortu, ez gagozalako Gobernuan, jakina. Gobernua osotzen daben bi taldeak azkordio bat egitea ipini dogu aurretik, proiektu pilotu hori, Etxanizen lehen proiektu hori garatu ondoren behintzat, genero-ikuspegi horregaz egin daiten txosten hori. Eta guk iragarri dogu zeintzuk diran gure kritikak, gure bildurrak, gure zalantzak, eta uste dogu txosten horrek hasieran azaltzen ari ginan norabide bera adierazoko dauela.

Izan be, zainketen politikek familia-inguruneko zaintzak bultzatzen badabenez, eta horri buruz ez badogu ezer egiten, harenbaten jazoten dana da emakumeei lotuta dagozan zaintza-rolak indartzen jarraituko dogula. Gauza bera, ez dogu lortuko Aldundiak bere norabidea aldatzea definituta daukazan politika estrategikoetan, eta EtxeTIC proiektua Aldundiaren proiektu estrategikoetako bat da. Proiektuaren ebaluazinoa eta azterketea egitea da lortu doguna, zeozelan eragina izan dagian, eta horreetako txostenen baten halan jaso ezker, diskriminazio hori edo zainketetan genero-rol horreek indartzen dabean politikak zuzentzeko neurriak ezarri ahal izan daiguzan.

Eta hirugarren puntua, nire ustez be sano garrantzitsua zana, eta, hain zuzen be, akordiotik kanpo geratu dana. Baina ez zaitez kezkatu, bozkatzeko eta babesteko aukerea izango dozu-eta barrero puntu bakar moduan sartzen dogunean, bete-betean gagoz-eta neurri horrek, hain zuzen be, zainketen genero-rolak kentzea ekarriko dauena edo kentzen lagunduko dauena, eta, gainera, bi helburu lortu gura dauz: alde batetik, zainketak behar dabean personeren eskubideak zabaltzea, edadekoen eskubideak zabaltzea; izan be, ez dago Eduardo, baina azaldu gura neutsan gaur arte dekretu hori aniztasun funtzionala daben personei bakarrik ezarten jakela, desgaitasuna dabenei, egunero lagunduko deuten persona bat kontratau ahal izan dagien. Eta dekretu horren aldaketeak kolektibo hori handiagoa izatea ekarriko leuke, zainketak behar dabean edadekoak egunero zainduak izan daitez. Guretzat hori sano feministea da, ez bakarrik jagongo diran personeren eskubideak zabaltzen dauzalako, gehienak emakumeak, ezpada modu irregularrean kontratatzen diran gehienak emakume migratuak diralako; horren haritik, lan-prekarietateko egoera horretan be eragina izango leuke, dekretu horren bidez modu arautuan egin leitekela. Gu bete-betean gagoz genero-ikuspegia daukan neurria dana.

Txosten hori izan arte itxaron behar dala? Tira, guk ez dogu itxarongo. Guk neurri zehatz bat proponiduko dogu, eta ikusiko dogu zelan gauzatzen dogun, eta Ganbera honetara edo jagokon batzordera ekarriko dogu dekretu hori berrikusteko proposamena. Ez bakarrik Elkarrekin Bizkaia eta EH Bildu bat gatozalako, ezpada gobernu-taldeak, Alderdi Sozialistek zein Euzko Alderdi Jeltzaleak be, 2021eko Foru Arauen Planean jasoten dauelako, eta Sergio Murillo Gizarte Zerbitzuetako diputaduak be Ganbera honetan aurreikusi ebalako aldatuko dala. Halanda ze, danok gatoz bat. Eduardo ez dakit, gu bai. Beraz, dekretu hori aldatu egingo da.

Halanda ze, gaur, lehen esan dodan lez, akordioari emon deusagu lehentasuna, krisi garrantzitsuen aurrean gagozalako: krisi demografikoa, ekologikoa, zaintzena, eta krisi horreen artean egiturazko aldaketak beharko doguzalako, eta hori ez da gaur egiten ari garana, ezpada faktore erabagigarri bat, akordioak, akordioak eta alkar ulertzeak. Eta gaur Jane Eyre eta Ana Bertari eskerrak emon gura deusdaz erakutsi daben jarrereagaitik gaur dakargun akordioan. Jakina, gitxieneko akordio bat dala uste dogu, eta proposamenak ekarten jarraituko dogu, baina, gure ustez, erronka sozial eta kolektibo honen aurrean zaintza-politikak lako oinarrizko gai baten danok ahalegindu behar gara nabarmen akordioetara heltzeko.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Duque Santacoloma. La representante del grupo Socialistas Vascos, señora Campo Prieto, tiene usted la palabra.

La Sra. **CAMPO PRIETO** andreak: Buenos días a todos/as.

Ea, orain egiten ari garan eztabaidan, lortu dogun akordioagaz geratuko naz. Sinistu egingo dot zaintzak jasoten dauzanarentzat eta emoten dauzanarentzat zeharkako politikak sustatzeko beharraz danok gatozala bat, horreek ikusiarazoteko, balioa emoteko, eta generoaren ikuspegitik. Argi geratu da, era berean, zaintzak berrantolatzeari ekitea funtsezkoa dana emakumeen eta gizonen arteko bardintasunerantz aurrera egiten jarraitu daigun, eta beste esparru batzuetan lortzen ari diran aurrerapenak honetan be emon behar dira. Eta Ganbera honetan beti egon gara ados horretan, ñabardurak ñabardura, baina, funtsean, ados. Uste dot gaur be argi geratuko dala.

Eraldatu egin behar dogu politika publikoakaz, horretan danok gatoz bat, eta zaintza-sistemea indartu egin behar dogu, sistemea demokratizau, kalidadea bermatu eta feminizazioa desnaturalizau. Politika zehatzak sustatzeko preminan bat gatoz, aurrera jarraitzeko preminan. Izan be, agendan dago daborduko, eta, horregaitik, uste dot gaur poztu egin behar garala talde guztiak gauza berean gagozalako, eta ezin da gelditu, aurrera egin behar dogu beharrezko aldaketei ekiteko. Horregaitik, ebaluetea eta ikastea proponiduten genduan, ahalik eta egokien egiteko.

Bide onetik goazala uste dogu, eta ez dogu uste eztabaidak zapuztea ona danik. Nire ustez, garrantzitsuagoa da gaurko akordioagaz geratzea; batez be emakumeen eta gizonen arteko bardintasunerako beharrea jarraitzeko gaur guztion artean adostu dogun konpromisoa onartzea. Eta nik, jakina, ez dot bat egiten analisiak eragindako paralisiaz; nik uste dot aurrera egiten dogun bitartean ebaluau leitekela, datuak atera leitekezala, gauzak ahalik eta ezagutza handienagaz jorratu ahal izateko, ahalik eta eraginkorrenak izateko. Gaurko akordioak danok poztzen gaitu. Besterik ez.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Campo Prieto. La representante del grupo Nacionalistas Vascos, señora Coria Yanguas, tiene usted la palabra.

La Sra. **CORIA YANGUAS** andreak: Muchas gracias de nuevo, señora Presidenta.

Nik bigarren txandea erabili gura dot nabarmentzeko zaintzen eztabaidan ados egotea zainketa-sistemea aberastea dala, trantsizinoan dagoan sistema konplejua, eta eten barik hobetzen doana. Eta etenbako hobekuntzeak etenbako azterlanak eta azterketak behar dauz. Izan be, De Madariaga andreak, bere egunean, azterlan hori berori egitea agintzen eban proposamen baten.

Aurrera egin daiteke eta eredia hobetu, eta, hain zuzen be, horixe ari gara ikusten. Aurreko txandan adierazo dodan lez, iraupen luzeko zainketetan jarduteko lau ardatzek gizonen eta emakumeen artean partekatutako zaintza-lanetan eragiten dabe, eta urrats horreek emoten ari gara gizon eta emakume jagoleen ehunekoak bultzatu daiguzan eta orekatzen joan daitezana. Danak batzen dau: iraupen luzeko zainketen eraldaketeak, Zaintzaileen Estatutuak, azterketeak, eta egoerea aztertzea genero-ikuspegia kontuan hartuta etxeko zaintzen arloan eta

emakumeen eta gizonen arteko eta familiaren eta administrazioaren arteko zainketetan erantzunkidetasuna erraztuko daberen politikak abiarazoteko bidean jarraitzeko egin leitezkean neurriek. Erronka horrek herritarren, klase politikoaren eta sektoreko eragile guztien konplizitatea eta inplikazioa behar dau, azken finean.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Coria Yanguas. Y la representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señora De Madariaga Martín, tiene usted la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Tira, poztan naz akordioak poztu egin zaituelako.

Hara, gure ikuspuntutik zure taldearen, EH Bilduren jatorrizko proposamena bera gitxienekoa zan, baina sano puntu garrantzitsu bat eukan, tortilleari buelta emoten eutsana. Eta zugaz guztiz bat nator mendekotasuna daberen personentzat, hain zuzen be, Laguntza Personalerako Prestazino Ekonomikoa (LPPE) handitzeak daukazan ontasunei buruz emoten dozuzan argudioakaz, zeozelan esatearren, lanak lan-kalidate txarrakaz egiten dabezan emakume horreen lan-merkadua arautzen laguntzen dauelako, eta, aldi berean, emakumeen zaintza-rol horregaz apurtzen laguntzen dauelako, esan daigun. Guztiz bat nator. Horregaitik faltan asmetan dot erdibideko proposamenean.

Gero, hara, harritzen nauen beste kontu bat dago. Nire ustez, Ganberan sortu dan akordioari jagokonez, eta zuok, tira, akordio horretara heltzeaz pozik zagoze, baina nire ustez, gitxieneko akordio bat da, oso-oso gitxienekoa. Niri barregarria iruditzen jat, gainera, talde batek Gobernuari eskatu behar izatea genero-ikuspegitik aztertu dagiala zaintzeari buruzko azterlan bat. Ba, itxiko deustazu esaten, baina txarto goaz horrelan egiten ez badogu. Pernandoren egia da-eta! Pernandoren egia, nahi-ta esan behar dodan EAJk eta PSEk aurkeztu eben zuzenketea ikusi ondoren ez nintzala horrenbeste harritu. Ez nintzan horrenbeste harritu azterketa horren xedea aldatu ebenean. Orduan ez nintzan horrenbeste harritu, hain zuzen be, daborduko eginda dagozan diagnostikoetako neurriak hartzen ari diralako, eta bertan aitatzen da zainketak etxeko testuinguruan nabarmentzeak edo indartzeak zainketen genero-rola areagotu egiten dabela, hain zuzen be. Ba, hara, alde horri arretarik ez deusiela emon ikusita, ulertzen dot hori eskatu behar izatea. Baina argitu eizue etenbako hobekuntzarako azterlanak garrantzitsuak diran edo ez, nik neuk neure zalantza handiak daukadaz-eta. Hau da, emoten dau azterlanak sano garrantzitsuak dirala era horretako jokabideak hor ixteko, sekula ez hartzeko; baina azterlanak ez dira beharrezkoak EtxeTIC zabaltzeko. Horretarako, azterlanik ez, ezta? Gauza batzuetarako, bai, eta beste gauza batzuetarako, ez. Zertan geratzen gara?

Nik arean koherentzia eskatzen deustuet. Zer lortzen ari gara benetan horregaz? Tira, ba, ebaluazino horri eta egingo dan azterketeari datak jartea; bide batez, ebaluazino hori mahai gainean izan behar genduan. Ondo, ederto, ez gara hori egitearen aurka jarriko, ados, baina non dagoz aldaketak? Noizko benetan emakumeen bizitzan aldaketak eragingo dauzan hori, noizko euren etxeetako mendeko personek jasoten daberen arretearen kalidatean benetako aldaketak eragingo dauzana?

Diagnostikoak eginda dagoz, eginda dagoz. Badaukaguz zenbat gura argudio makina bat neurri abiarazoteko, eta hementxe jarraitzen dogu, beste diagnostiko bati itxaroten, ba, ederto. Nire ustez, egia da hemen danok bat egiten doguna zaintza-ereduaren eraldaketea defendiduten, baina, zergaitik? Zergaitik dinogu Ganbera honetako talde guztiok zaintzen erdua eraldatzearen alde gagozala? Eta hortxe dago kakoa, galdera horri erantzuteko eran. Eta nik, zuzenketa ikusi ostean, EAJk eta PSEk EH Bilduri aurkeztu deustien jatorrizko



zuzenketea, errezeloa daukat horren erantzuna dala Gobernu honen kasuan zaintza-ereduaren eraldaketeak errealidade soziodemografikoaren aurrean ereduari eusteko beharrari erantzuten deusala. Horixe da zuei interesetan jatzuen gauza bakarra. Horixe da, hain zuzen be, zuen leitmotiv. Eta horregaitik, abiarazoten dozuezan neurrien helburua finantza publikoak egonkortzea baino ez da, eta, horixe da EtxeTIC ereduak errazten dauena, hatan be. Helburua ez da zaintza-lanen feminizazioagaz amaitzea, ez, ezpada gero eta handiagoa dan erabiltzaile potentzialen taldearen eskariak gora egin dagiala saihestea zor nahi lor. Horixe dago zuon neurrien munean. Ez dau zaintzen erantzukizun publikoa bere gain hartu gura; horren itxurea emon gura dau prestazino ekonomikoen eran ekarpen txikiak eginez, publizidade-kanpainakaz, jagoten gaituana jagonda, baina zaintzearen erantzukizuna espazio pribaduan ixten jarraitzen dozue. Ez gara aurka jarriko, baina ez deusagu arpegia garbituko akordio bati, ez deutse-eta ekarten inongo onurarik ez mendeko personei, ezta zainketa horrek egiten dabezana emakumeei be.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora De Madariaga Martín.

Y una vez finalizado el debate, someteremos a votación la transaccional. ¿Votos a favor de la transaccional? ¿Votos en contra? ¿Abstenciones? El resultado es el siguiente: se han emitido 50 votos en total; han sido 44 votos a favor, no ha habido votos en contra. Abstenciones, 6. Por tanto, queda aprobada la transaccional.

A continuación, el punto 8º del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

7.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Entidades Locales: Banderas, Denominación y Escudo ([R.E.11/E/2021/0002930](#))

**Autor:** Diputación Foral de Bizkaia

**Asunto:** Creación de la bandera del municipio de Artea.

**Documento Principal:** [Ver](#)

**Boletines:** [Admisión a trámite](#) (4A), [Dictamen de la Comisión](#) (4B)

**Expediente:** ([11/B/13/0002884](#))

7.- Honako idatzi hau aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Toki erakundeak: banderak, izenak eta armarriak ([11/E/2021/0002930SE](#))

**Egilea:** Bizkaiko Foru Aldundia

**Gaia:** Arteako udalerriko bandera sortzea

**Dokumentu Nagusia:** [Ikusi](#)

**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea](#) (4A), [Batzordearen Erizpena](#) (4B)

**Espedientea:** ([11/B/13/0002884](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Iniciaremos el turno de los grupos. El Grupo Mixto no va a intervenir. El/la representante del grupo Elkarrekin Bizkaia no sé si intervendrá o no. ¿Intervendrá el/la representante de Elkarrekin Bizkaia? No va a intervenir. El representante del grupo Socialistas Vascos intervendrá desde el escaño. Señor Otermin Eraso, tiene usted la palabra.

El Sr. **OTERMIN ERASO** jaunak: Bai, eskerrik asko, Mahaiburu andrea, eta egun on guztioi.

Hiru puntuak sano antzekoak diranez, hirurei buruzko azalpen bat emongo dot. Kasuan kasuko foru-arauetan (1986ko hamabigarrena eta 2013ko bederatzigarrena), eta araudi horretan ezarritako izapidetzea izan dauenez, amaitutzat emongo dogu prozedura. Eta ez dakigunez erabagia eraldatuko leuken inongo elementurik egon danik, hiru proposamenen alde egingo dogu. Besterik ez.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Otermin Eraso. La representante del grupo EH Bildu, señora Arantza Urkaregi Etxepare, tiene usted la palabra.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta. Y, bueno, yo también haré..., diferenciaré, ahora hablaré de las dos banderas, las dos banderas de los municipios, tanto de la de Artea como de la de Ugao.

Normalmente estas cuestiones las aprobamos por unanimidad en las Juntas Generales. Pero es así porque cuando estos temas llegan aquí es porque se suelen aprobar primero por unanimidad en los plenos de los ayuntamientos. Y ese no es el caso del Ayuntamiento de Artea ni el caso de Ugao.

En el caso del Ayuntamiento de Artea hubo 4 votos favorables del PNV y 3 abstenciones (2 de EH Bildu y 1 de Aldatuz). De la lectura del acta no parece desprenderse que se hubieran hecho grandes esfuerzos para alcanzar un acuerdo. Aldatuz decía que no era un tema prioritario y Bildu planteaba que desde el punto de vista histórico se podría haber planteado otra bandera. Se sometió a votación, y..., kitu, se aprobó por mayoría.

No entraremos en ese debate, pero es evidente que EH Bildu es de la opinión de que ante un símbolo que servirá como identificativo del municipio se debe tratar de llegar a un consenso pleno. Y creemos que en el Ayuntamiento de Artea no se ha hecho ningún esfuerzo para llegar a ese acuerdo.

Por lo tanto, mantendremos en estas Juntas Generales la misma posición que tuvimos en el Ayuntamiento de Artea: la abstención.

Y el caso de Ugao es el mismo: en el Ayuntamiento no ha habido acuerdo. 7 votos a favor del PNV y 4 abstenciones de EH Bildu. La razón es que no se veía la necesidad de entrar en ese tema, mucho menos en estos momentos.

Y de nuevo, tuvieron lugar un par de intervenciones, se procedió a la votación y ya está. No creemos que haya habido ningún esfuerzo por alcanzar un consenso.

Y tal y como manifestaba en el caso de Artea, mantendremos en estas Juntas Generales la misma posición que tuvimos en el Ayuntamiento de Ugao: la abstención.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Urkaregi Etxepare. La representante del grupo Nacionalistas Vascos, señora Gómez Devesa, desde el escaño, tiene usted la palabra.

La Sra. **GÓMEZ DEVESA** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Labur-labur. Bai Arteako banderearen kasuan, bai Ugaoko banderearen kasuan, kontuan hartuta, alde batetik, udalbatzaren erabagiak eta, beste alde batetik, txostenek, proposamenen inguruko txostenek, bexilologoek egindako txostenek honako erispideetara ondo egokitzen dirala dinoela, hau da, bai Espainiako biologiako alkartearen eta bai Eusko Ikaskuntzako erispideetara, eta, gainera, kontuan hartuta espedienteak fase guztietan izapidetu dirala, eta jente aurrean egon dan bitartean ez dala alegazinarik egon, eta aholku-batzorde juridikoaren aldeko txostenak kontuan hartuta, ba, ez dogu prozeduran inongo eragozpenik ezta erreparorik ikusten, eta alde bozkatuko dogu.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Y una vez concluido el debate, someteremos a votación la iniciativa. ¿Votos a favor? No hay votos en contra. ¿Abstenciones? El resultado es el siguiente:

Se han emitido 50 votos en total: han sido 40 votos a favor, no ha habido votos en contra, 10 abstenciones. Por lo tanto, aprobada la creación de la bandera del municipio de Artea.

El punto 9º del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

8.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Entidades Locales: Banderas, Denominación y Escudo ([R.E.11/E/2021/0002931](#))

**Autor:** Diputación Foral de Bizkaia

**Asunto:** Creación de la bandera del municipio de Ugao-Miraballes.

**Documento Principal:** [Ver](#)

**Boletines:** [Admisión a trámite](#) (5A), [Dictamen de la Comisión](#) (5B)

**Expediente:** ([11/B/13/0002885](#))

8.- Honako idatzi hau aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Toki erakundeak: banderak, izenak eta armarriak ([11/E/2021/0002931SE](#))

**Egilea:** Bizkaiko Foru Aldundia

**Gaia:** Ugao-Miraballeseko udalerriko bandera sortzea

**Dokumentu Nagusia:** [Ikusi](#)

**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea](#) (5A), [Batzordearen Erizpena](#) (5B)

**Espedienteak:** ([11/B/13/0002885](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Secretario. Desconozco si los/as representantes tienen intención de intervenir en el debate; así lo han anunciado. Por tanto, pasaremos directamente a la votación.

¿Votos a favor? ¿En contra? ¿Abstenciones? Por consiguiente, el resultado es el siguiente:

Se han emitido 50 votos en total: han sido 40 votos favorables, no ha habido votos en contra, 10 abstenciones. Por tanto, aprobada la bandera del municipio Ugao-Miraballes.

Y a continuación, tenemos el punto 10º del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

9.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Entidades Locales:

Banderas, Denominación y Escudo

[\(R.E.11/E/2021/0003050\)](#)

**Autor:** Diputación Foral de Bizkaia

**Asunto:** Modificación del nombre del municipio de Arrankudiaga.

**Documento Principal:** [Ver](#)

**Boletines:** [Admisión a trámite](#) (6A), [Dictamen de la Comisión](#) (6B)

**Expediente:** [\(11/B/13/0002912\)](#)

9.- Honako idatzi hau aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Toki erakundeak:

banderak, izenak eta armarriak

[\(11/E/2021/0003050SE\)](#)

**Egilea:** Bizkaiko Foru Aldundia

**Gaia:** Arrankudiaga udalerraren izena aldatzeko proposamena

**Dokumentu nagusia:** [Ikusi](#)

**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea](#) (6A), [Batzordearen Erizpena](#) (6B)

**Espedientea:** [\(11/B/13/0002912\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: En este punto, quiero saludar al alcalde de Arrankudiaga, Txutxi Ariznabarreta, que asiste como invitado en la Sala de la Vidriera. Lo saludamos desde aquí, y en este caso, procederemos al turno de los grupos. El/la representante del Grupo Mixto-Partido Popular no va a intervenir. Tampoco el/la del grupo Elkarrekin Bizkaia. El/la representante del grupo Socialistas Vascos no va a intervenir. La representante del grupo EH Bildu, señora Urkaregi Etxepare, tiene usted la palabra.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta. Y yo también, para empezar, un cordial saludo al señor Txutxi Ariznabarreta, alcalde de Arrankudiaga, que está aquí, junto a nosotros/as.

En este punto ha ocurrido lo contrario de lo que hemos comentado en los anteriores puntos: el Pleno ha aprobado por unanimidad la denominación de Arrankudiaga-Zollo.

Y en el expediente se ve claramente que no ha sido una decisión fácil, ya que esa no fue la propuesta que hizo el Pleno municipal. Su propuesta era Arrankudiaga eta Zollo. Y así se tramitó el cambio de denominación.

Y cuando todo estaba listo, en la propia comisión, el 16 de febrero del año pasado, cuando teníamos que adoptar una decisión, el tema quedó sobre la mesa porque la Diputación anuló la decisión que se había adoptado. De pronto, no estaba claro cuál era la propuesta de denominación, si era en euskera, en euskera y en castellano, cuando la propuesta estaba en euskera y todo lo demás era cuestión de traducción. No entraremos en eso.

Después, el pleno municipal debía decidir de nuevo si mantenía o no esa denominación. Y la mayoría absoluta de la Asamblea de Zollo del 25 de abril volvió a apostar por el nombre de Arrankudiaga eta Zollo. Se decidió hacer esfuerzos por mantener esta opción y, en caso de que ello no fuera posible, se aceptó que la segunda opción fuera Arrankudiaga-Zollo.

Y ciertamente se han esforzado: se han llevado a cabo reuniones con las personas coordinadoras de los grupos junteros, reuniones con la Diputada señora Elixabete Etxanobe y con el Director General de Administración Local, señor Josu Bergara, entrevistas con el Jefe de Servicios Jurídicos de la Diputación Foral... Pero aun y con todos los esfuerzos no se ha conseguido abrir la puerta a la posibilidad de la denominación de Arrankudiaga eta Zollo.

Y ante esta situación, mantener esa denominación suponía un gran riesgo: si todos los informes, incluido el de Euskaltzaindia, no eran favorables, se archivaría el expediente, o eso era al menos lo que manifestó la Diputación, y habría que volver a empezar desde cero.

Y al final, han tenido que aprobar el nombre que votaremos hoy: Arrankudiaga-Zollo. EH Bildu votará a favor porque la Corporación ha propuesto por unanimidad este nombre, aunque tenga claro que ese no era su deseo inicial.

Pero sí queremos hacer un llamamiento a la Diputación para que tenga una actitud más flexible en estos procedimientos y que trabaje para hacer realidad el nombre que demandan los ayuntamientos, haciendo los esfuerzos necesarios. En este caso, los esfuerzos han sido unilaterales, por parte de la Asamblea de Zollo. En las próximas esperamos que la Diputación haga esfuerzos por respetar la propuesta de los ayuntamientos.

Para finalizar, nuestra enhorabuena y agradecimiento por el trabajo realizado a todos los compañeros y compañeras de Arrankudiaga y Zollo.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Urkaregi Etxepare. Y la representante del grupo Nacionalistas Vascos, señora Gómez Devesa, tiene usted la palabra.

La Sra. **GÓMEZ DEVESA** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Deseo saludar al señor alcalde Ariznabarreta.

Kontuan hartuta udalbatzak Arrankudiaga-Zollo izenari buruz aho batez hartutako erabagia, indarrean dagoan araudiak eskatutako izapideak bete dirala, eta jente aurreko erakustaldian alegaziorik aurkeztu ez dala, Eusko Ikaskuntzaren txostenak, laguntza juridikoaren atalaren txostena eta aholku-batzorde juridikoaren erespena be aldekoak izan dirala, espedientea, beharbada, arean konplikatua goa izan dan arren, baina, tira, indarrean dagoan araudiak eta horren garapenak eskatzen dauzan izapide guztiak bete dira, eta, berme bat izan da, bermatu dau prozedurea egokitu behar zanera egokitzen zala, indarrean dagozan araudietara, eta uste dogu udalbatzearen aho bateko erabagiak be bermatzen dauela.

Eta, tira, ezarrita dagoan prozedurearen arabera izapidetu dan lez, ez dogu erreparorik edo eragozpenik ikusten, eta aldeko botoa emongo dogu.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Gómez Devesa.

Y una vez concluido el debate, someteremos a votación la iniciativa. ¿Votos a favor? No hay votos en contra. No hay abstenciones. El resultado es el siguiente.

Se han emitido 50 votos en total: han sido 50 votos a favor. Por tanto, queda aprobado por unanimidad.

Y una vez concluido el Orden del Día, finaliza también esta Sesión Plenaria. Que tengan todos/as un buen día.

Batzarra 13:06an amaitu da.

Se levanta la sesión a las 13:06 horas.